

ASPERGER SINDROMEA

Ikasgelan lantzeko estrategia praktikoak

Irakaslearen gida

EGILEAK

Leicester-go Udaleko Hezkuntza Saila
Autismoari buruzko Aholkularitza Zerbitzua
George Thomas

Leicestershire Konderriko Hezkuntza Saila
Autismoari buruzko Aholkularitza Zerbitzua
Penny Barrat
Heather Clewley
Helen Joy
Mo Potter

Hezkuntza Psikologia Zerbitzua
Philip Whitaker

ARGITARATZAILEA NATIONAL AUTISTIC SOCIETY

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Kultur Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Deporte

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2002

Argitalpena: 1.a, 2002ko abendua

Ale-kopurua: 500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkutza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Konposaketa: Composiciones RALI, S.A.
Particular de Costa, 8-10, 7.^a - 48010 Bilbao

Inprimaketa: Estudios Gráficos ZURE, S.A.
Carretera Lutxana-Asua, 24-A - Erandio-Goikoa (Bizkaia)

ISBN: 84-457-1904-1

Lege Gordailua: BI-2880-02

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bere eskerrik beroenak luzatu nahi dizkio Erresuma Batuko Autismoaren Erakunde Nazionalari, honako esku-liburu honen argitalpena ahalbidetzeko orduan eskainitako lankidetzara oparoagatik.

Jatorrizko izenburua:

Asperger syndrome-practical strategies for the classroom.

A teacher's guide

Lehenengo argitalpena (1988) Erresuma Batuko Autismoaren Erakunde Nazionalak egin zuen
393 City Road. London EC1V 1NE.

*Eskubide guztiak erreserbatuta. Debebatuta dago kopiazea, informazioa berreskuratzeko sistemetan gordetzea, edo argitalpen honen zati bat igortzea, erabiltzen den metodoa edozein delarik –elektronikoa, mekanikoa, fotokopia, grabazioa edo beste edozein– jabego intelektuala-
ren eskubideen titularrek aldez aurretik baimenik eman ez badute.*

© **The National Autism Society**

Ingelesko itzulpena:

Elena Campo Alonso

Ikuskapen teknikoa:

Joaquín Fuentes Biggi

Medikuntza Aholkularia. GAUTENA

Argitalpenaren koordinazioa:

Alicia Sainz Martínez. Garapenaren Nahaste Orokorrak programaren teknikaria. ISEI-IVEI
Irakas-sistema ebaluatu eta ikertzeko erakundea/ Instituto vasco de evaluación e investigación
educativa.

ESKER ONAK

Honako gida hau lanaren egileek landu dute, Leicester hiriko udalean eta Leicestershire Konderrian beren lana garatzen zuten bitartean. Asperger sindromea duten eskolako haur eta gazteei laguntzeko garatzen den lanean oinarritu dira honako gida hau lantzeko orduan.

Gainera, Asperger Sindromea duten pertsonen laguntzako toki-taldee ere eskerrak eman nahi dizkiegu, beraiek izan baitira eskoletan jendea kontzientziatzeko premia eta eskolei laguntzeko premia azpimarratu zutenak. Bestalde, irakasleei ere eskerrak eman nahi dizkiegu estrategia asko probatzeko eta garatzeko orduan eskainitako laguntzagatik.

AURKEZPENA

2002. urtean hogei urte betetzen dira Euskal Autonomia Erkidegoan HEZKUNTZA BEREZIKO PLANARI hasiera eman zitzaionetik.

Plan honek ordura arte “hezkuntza berezikotzat” hartzen ziren inguruneetan tratatu ohi zen ikasleriari erantzun bat emateko berebiziko aldaketak ekarri zituen hezkuntza zerbitzuen antolamendu eta planteamenduaren aldetik.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Hezkuntza Sistema osatu, solidario eta kalitatezko batean oinarrituta, gai horretan sakontzeko asmoa erakutsi du beti. Hezkuntza Sistema horrek aukera berdintasuna bermatu, eta hezkuntza premia bereziak dituzten pertsonen arreta pertsonalizatua eskainiko die, aniztasuna errespetatuko du eta sentsibilitatea erakutsiko du.

Eusko Jaurlaritzak ikuspegi hori kontuan hartuta eraiki zuen HEZKUNTZA BEREZIKO PLANA; kolektibo horri erantzuna sektorearen Indibidualizazio, Sektorizazio, Normalizazio eta Integrazioko parametroetan oinarrituta planifikatuz.

Planean jarraitutako ildo nagusiak eguneratu egin dira azken urteetan, baina beti ere garapenaren arloan desoreka orokorrak dituzten ikasleen eskola ulerkor eta integratzailearen erreferentzia esparruarekin.

Argitalpen honetan eranstean diren materialak, Erresuma batuko THE NATIONAL AUTISTIC SOCIETYk utzitakoak, GAUTENAREN bitartez, erabilgarritasun handikoak dira, bai irakasleentzat, bai eta Hezkuntza Premia Bereziak dituen ikasleriaren gurasoentzat ere.

Argitalpen hau, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak kalitateko euskal eskola lortzeko ekimenak sustatzeko interesaren erakusgarri da. Euskal eskola horretan, gizarte justu, orekatu eta aurrerakoia eraikitzeko ezinbestekoa den banakako eta gizarte-mailako elementu gisa ezagutza hedatu eta garatuko dute.

ANJELES IZTUETA AZKUE
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua

AURKIBIDEA

Gidaren sarrera	13
Asperger Sindromeari sarrera	15
Gizarte-harremanak	19
Parte-hartzea eta lagunak egitea	19
Taldeetan integratzea	20
Gainontzekoek adierazitakoa ulertzea	22
Zer egin lagunak galtzean?	23
Zer egin etenaldiak saihesteko?	25
Zer egin oiheskeria saihesteko?	25
Komunikazioa	27
Arauk jarraitzeko zailtasuna	27
Helduen hizkuntza ulertzea	28
Interpretazio literalak	31
Keinuketa gehiegi edo bat ere ez	32
Ozenegi edo azkarregi hitz egitea	33
Galdera errepikakorrak	34
Irudimena eta zorroztasuna	37
Elkarrizketarako gai obsesiboak	37
Arauk betetzeak duen garrantzia	38
Fobiak	39
Gauzak egiteko modua aldatzea	40
Aldaketen aurrean adi egotea	41

Sentsorial eta mugimen-mailako zailtasunak	43
Soinuen aurrean erreakzio desegokiak	43
Erreakzio desegokiak edo kontaktu fisikoaren okerreko interpretazioa	44
Ikus-estimuluen aurreko hipersentiberatasuna	45
Emozio-mailako zailtasunak	49
Autokontrolaren garapena	49
Antsietatea	50
Frustrazioa eta umore-aldaketak	52
Autokontzientzia	53
Depresioa	55
Lanerako trebetasunak	57
Motibazioa	57
Antolamendu pertsonala	58
Kontzentrazioa eta ikasteko giroa	59
Gehiegizko mendekotasuna	61
Idazketarekin arazoak	62
Arazoak oroimenarekin	63
Zer egin etxeko lanekin?	64
Gehiago jakin nahi izanez gero	67
Helbide erabilgarriak	69

GIDAREN SARRERA

Asperger sindromea duten gizabanako guztiek funtsezko zenbait zailtasun dituzte, nahiz eta Asperger sindromea duten gizabanakoak oso desberdinak izan elkarren artean. Honako gida honetan gaixotasun honek eragindako funtsezko minusbaliotasunen izaera deskribatzen saiatu gara, bai eta minusbaliotasun horiek eskolan sor ditzaketan arazoak ere; horrez gain, gida erabiltzeko hainbat argibide ere eskaintzen ditugu.

Gidaren lehenengo zatian Asperger Sindromearen ikuspegi orokorra egin da, eta bertan, oinarrizko minusbaliotasunen hiru arloak azpimarratzen dira. Horrez gain, sekzio honetan, Asperger sindromea duten ikasleengana zuzendutako hezkuntza-erantzunak laburki aztertzen dira. Zati honen ondoren, gida beste sei sekziotan bereizita dago; horietatik hiru oinarrizko minusbaliotasunei buruzkoak dira, eta gainontzeko hirutan eskolan sarritan agertzen diren zailtasun-eremu zabalak aztertzen dira.

Gure helburua ez da honako gida hau lehenengo orritik azkenera arte irakurtzea; eta hori kontuan hartuta, formatu berezi bat landu dugu, hartara irakurleek garrantzi handien duten orriak bereizi ahal izateko. Gidaren egitura honako hau da:

- Izenburu bat, berariazko gai bakoitza bereizteko.
- Testuinguru erreal batetik ateratako esaldi labur bat, hartara jarraian datorren edukia gure kasu zehatzean erabil ote daitekeen erabakitzeo.
- “*Egoera ulertzeko gakoak*” izeneko atala, oinarrizko zailtasunek arazo berezi horretan duten eragina argitzen saiatzen da.

- “*Estrategia erabilgarriak*” atalean, izandako esperientzian oinarrituta jarraitu beharreko estrategiak eta aholku praktikoak ematen dira. Baliteke atal honetan egiten diren iradokizunak norberaren egoera zehatzarekin edo haurraren egoerarekin erabat bat ez etortzea, baina orientabide moduan egokiak izatea espero dugu.

Honako lan honen bidez, Asperger Sindromea duten hurrek bizi dituzten zailtasunak ulertzen lagundu nahi dugu. Eta gure esperientziaren arabera, Asperger Sindromea duten gizabanakoen errealitatea ulertzea funtsezkoa da jarraian eskainiko ditugun estrategia praktikoei behar bezalako etekina ateratzeko.

ASPERGER SINDROMEARI SARRERA

Orokorrean, Asperger Sindromea autismo-mota bat bezala ulertzen da. 40ko hamarkadan, Asperger psikiatra alemanak aztertu zuen gaixotasuna, eta hortik datorkio izena Sindromeari. Asperger-ek gainontzekoekin erlazionatzeko eta komunikatzeko orduan zailtasun handiak zituzten haurrekin egin zuen lan.

Oinarritzko hiru zailtasun

Asperger Sindromea duten pertsonen arazoak dituzte *gizarte-elkarreraginean eta gizartean komunikatzeko orduan, eta ez dute pentsamendu-mailako malgutasunik* ægerta daiteke irudimen pobrea izatea, interesak oso biziak edo mugatuak, eta ohiturekiko atxikipen izugarria. Diagnostiko bat landu ahal izateko, arlo bakoitzean (oinarrizko hiru zailtasunak izenez ezagutzen ditugunak), minusbaliotasun-mota eta minusbaliotasun-maila desberdinak bereizi behar dira. Hori esan ondoren, argi eta garbi ulertu behar da gaixoek bizi ditzaketen zailtasunen larritasuna, eta zailtasunek duten agerpena desberdina izan daitekeela. Horrez gain, gogoan izan behar dugu, Asperger Sindromea duten gizabanakoek, bakoitzak izandako banakako bizi-esperientziek moldatutako berriazko nortasuna dutela (síndrome hori ez duen jendearekin gertatzen den bezalaxe).

Autismoaren kasuan bezala, Asperger Sindromea arazo organiko batek eragiten du eta ez jasotako heziketak. Autismoa duten pertsonen kasuan ez bezala, Asperger Sindromea duten pertsonen arazo gutxiago izaten dute hizkuntza garatzeko, eta ikaskuntzari dagokionez ere, zailtasun gehigarri gutxiago izan ohi dute. Autismoaren eta Asperger Sindromearen oinarri psikologikoa zein den oraindik ez da lortu argi eta garbi zehaztea.

Gizarte-elkarreragina eta gizarte-erlazioak

Asperger sindromea duten zenbait haurrek nahiago izaten du bakarrik egotea lagunartean baino. Baliteke beren espazio pertsonalaren jakitun izatea eta inor gehiegi hurbilduz gero deseroso egotea. Askok ahalegin handia egiten dute jarrera irekia azaltzeko, baina jendearengana hurbiltzeko orduan ez dira trebeegiak izaten. Baliteke hurbildu zaien pertsonari ez begiratzea edo “okerreko seinaleak” egitea, nahastuta. Aipatu zailtasun guztiak orekatzeko oso modu formalean jokatzeko dute. Egoera jakin batzuetan, norberari eskatzen zaiona antzemateko arazo larriak izan ohi dituzte: baliteke eskolako zuzendariarekin azalduko duten jarrera eta lagunekin edo gurasoekin azalduko dutena berdina izatea. Baliteke, harremanak finkatzeko orduan, egoera gatazkatsuei konponbidea aurkitzen ez jakitea, eta konturatu gabe, jarrera antisoziala agertzea.

Komunikazioa

Asperger sindromea duten haurrek ez dituzte komunikatzeko mekanismoak behar bezala ulertzen, gramatikaren eta hiztegiaren garapena ona badute ere. Baliteke laguntza nola eskatu edo beren nahia noiz inposatu ez jakitea. Baliteke hitz egiteko orduan ahots monotonoa erabiltzea, bolumena eta intonazioa ia kontrolatu gabe. Elkarrizketa batean, gehien atsegin duten gaiari buruz hitz egiten dute, eta behin eta berriro ateratzen dute gustuko duten gai hori, gai bakar horrekin obsesionatuta bailiran. Txisteak, esamoldeak eta metaforak ulertzeko orduan arazoak izaten dituzte. Erabiltzen duten hizkuntzak pedantea edo artifiziala dirudi. Estres handiko egoeretan, gaixo hauen komunikatzeko gaitasunaren kalitatea ere murriztu egiten da. Eta aurpegi-espresiorik eza, keinuketa mugatua eta gainontzekoen gorputz-hizkuntzaren okerreko interpretazioa dira komunikatzeko orduan zailtasunak izatea eragiten duten beste zenbait faktore.

Irudimena eta pentsamendu-malgutasuna

Asperger sindromea duten haurren ezaugarri berezi bat da jolasteko orduan dituzten trebetasun mugatuak. Normalean, jarduera mekanikoak nahiago izaten dituzte, hala nola bildumak egitea, muntaketak, eta abar. Irudikapen sinbolikoko jolasak ikas ditzakete, baina garapen bereko lagunak baino beranduago. Jolas horiek ikasi ondoren, behin eta berriaz errepikatzen dituzte. Pentsamendu-malgutasuna murrizten duten beste faktore batzuk dira: aldaketen aurrean kontrako jarrera azaltzea, errepikatzen diren gauzak nahiago izatea, eta ohituren eta erritualen garapena.

Ohikoa da Asperger sindromea duten pertsonen alor mugatu eta bitxietan interes oso biziak garatzea. Sindrome hau duten gizabanakoek arazoak izan ohi dituzte “beste inoren lekuan jartzeko orduan”, edo gauzak beste ikuspegi desberdin batetik ikusteko orduan. Zehatza den horri eta aurreikusi daitekeen horri bakarrik aurre egin behar diotenean egoten dira eroso.

Beste zenbait zailtasun

Asperger sindromea duten hurrek eta gazteek arazoak izan ohi dituzte mugitzeko trebetasunekin, eta sentimen-estimuluen aurrean erreakzio bitxiak azaltzen dituzte. Eta orain aipatu berri ditugun zailtasun horiek, eta jada aipatu ditugun oinarrizko minusbaliotasunek, zailtasun esanguratsuek osatutako multzo bat eratzen laguntzen dute, bereziki lanera-ko trebetasunen eta emozio-mailako ahultasunen kasuan.

Alderdi positiboak

Haur hauek izan badituzte zenbait alderdi positibo garrantzitsu, gizarte-esparruan makina bat zailtasun badute ere. Askotan oroimen mekaniko bikaina izaten dute; interesak zehatzasun handiz dituzte definituta, mugatuak badira ere; lexiko zabala dute; zientziaren eta teknologiaren esparruetan ezagupen edo trebetasun sakonak izaten dituzte.

Asperger Sindromea duten haurrentzat hezkuntza-erantzuna

Lehen ere esan dugunez, Asperger sindromea duten lagunek dituzten zailtasunak ez dira maila berean agertzen gaixo guztiei dagokienez. Eta oinarrizko minusbaliotasunak agertzeko modua ere aldatu egiten da gaixo batetik bestera. Gogoan izanda gaixo hauek dituzten premiak desberdinak direla, argi dago hezkuntza-erantzun desberdinak landu behar direla. Haur hauen premiak asetzeko orduan, ezinbestekoa da jarraian azaltzen diren printzipioak kontuan hartzea:

- Ingurua haurraren errealitatera behar bezala moldatuz gero, eta haurren trebetasunak modu egokian sustatuz gero (bereziki minusbaliotasunen oinarrizko arloetan), haur hauekin garatzen den lana arrakastatsua izan ohi da.
- Laguntza eskaintzeko orduan, haur bakoitzaren berariazko premiak hartu behar dira oinarrian, eta diagnostiko generikoak baztertu.
- Hezkuntza-premia bereziei arreta eskaintzeko landutako araudiak zehazten duen esparruaren baitan erantzun behar die eskolak haur hauen premia bereziei.

Errealitatean, Asperger sindromea duten haur gehienak joaten dira eskolara. Zenbait kasutan, aparteko baliabideak erabili gabe laguntzen zaie haur hauei. Beste zenbait kasutan, berriz, hezkuntza-premia bereziak dituzten haurren egiaztapena beharrezkoa da, eta ondorioz, baliabide- eta laguntza-mota desberdinak martxan jarri behar izaten dira. Asperger sindromea duen gaixo gutxik behar izaten du berariazko zentroetara joatea.

Haur batek Asperger Sindromea duela susmatzen badugu, zer egin?

Lehenik eta behin, eskolako hezkuntza-premia berezien arduradunarekin hitz egitea komeni da. Hezkuntza-premia berezien arduradunak, eskolako psikologoarekin¹ kontsulta egingo du. Beste aukera bat da (bereziki haurrak, oraindik, eskolatzeko adinik ez badu) gurasoei Haur eta Familia Psikologiako Toki Zerbitzura edo pediarrara jotzeko gomendatzea, Familia Medikuen bitartez.

¹ Euskal Autonomia Erkidegoko eskola-antolamenduaren baitan, Berritzegunetako Hezkuntza Premia Berezi-ko aholkulariak (Lehen PAT-eko Talde Multiprofesionalak) dira erantzun-mota horren arduradunak.

GIZARTE-HARREMANAK

Parte-hartzea eta lagunak egitea

Graham parte hartzen eta lagunak egiten saiatzen bada ere, badirudi gainontzeko lagunak bere onetik ateratzea bakarrik lortzen duela. Inork ez du berarekin egon nahi.

Egoera ulertzeko gakoak

- Asperger sindromea duten lagunek adiskideak egin nahi dituzte, baina ez dakite nola lortu.
- Zenbaiten kasuan, zaila egiten zaie gizarte-elkarreragina lortzeko gakoak ulertzea.
- Elkarrizketa batean, Asperger sindromea duten gaixoez zailtasunak izaten dituzte elkarrizketaren txandaketa erregulatzen duten seinale ez-ahozkoak antzemateko. Baliteke aukeratutako gaiaren garrantzia edo interesa adierazteko entzuleak igortzen dituen arrastoak bereizten ez jakitea. Baliteke Asperger sindromea duen pertsonak gai arrotzei buruz, eta gehiegizko xehetasunak emanez, hizketakidearekin isildu gabe hitz egiten aritzea.
- Minusbaliotasun hau pairatzen duten zenbait gaixo gehiegi hurbiltzen dira hizketakidearengana hitz egiteko orduan, ahozkoak ez diren seinaleak oker erabiltzen dituzte, eta hitz egiteko erabiltzen duten ahotsaren tonua oso monotonoa izan ohi da.
- Baliteke zenbaitek arazoak edukitzea konfiantza-maila egokia lortzeko. Hots, bartzuetan formalegiak dira, edo aitzitik, erabat ezezaguna den pertsona bat lagun min bati bezala hitz egiten diote.

Estrategia erabilgarriak

- Gehienok intuizioz antzematen ditugun arauak eta ohiturak, Graham-en kasuan berriaz irakatsi behar dira. Esate baterako, agur egitea, txandak errespetatzea edo elkarrizketa bat amaitzea, eta entzuleak interesik ba ote duen antzematea.
- Graham-i behin eta berriro gai berari buruz hitz egitea gustatzen bazaio, mugak jar daitezke, eta gai jakin hori elkarrizketa batean noiz eta nola atera irakatsi behar zaio. Seinale bat erabil daiteke, hau da, keinu bat egin edo “giltza” izango den hitz edo esaldi bat erabili.
- Baliteke Grahamek elkarrizketa-eredu arruntak behar izatea, eta horiek landuz eta akatsak zuzenduz, arau eta estrategia zehatzak ikasi ahal izango ditu. *The Social Use of Language* [Hizkuntzaren Gizarte Erabilera] (Rinaldi, NFER) lanean zehazten den esparrua oso erabilgarria gerta daiteke elkarrizketaren trebetasunak helburu erabilgarri bihurtzeko orduan. Gogoan izan, normalean irakasleek ikasgelan hitz egiterakoan erabiltzen duten elkarrizketa-eredua ez dela egokia.
- Grahamen lagunen artean tolerantziatzeko jarrera eta gaixoaren portaera ulertzeko ahalegina sustatzea ere garrantzitsua da. Gainontzeko haurrak Grahamengana hurbiltzera animatu behar dira, eta horretarako, baliteke eskolan garatzen diren jarduerak egituratuak egokiak izatea.
- Baliteke gainontzeko ikaskideekin harremanetan egoteko denbora ez egituratua murriztea egokia izatea. Grahamek zailtasun gutxiago izango ditu nolabait antolatuta dauden jarduerak formalak garatzeko orduan (adibidez, aldeztu aurretik antolatutako hezkuntza-jarduerak garatzeko edo jolas-jarduerak garatzeko taldean lan eginez).
- Jolas-orduan haur txikienez jolasak antolatzea modu egokia da gizarte-mailako kontaktua areagotzeko, eta aldi berean, nolabaiteko egitura bat eskaintzeko.

Taldeetan integratzea

Jolas-orduan, Ranjit bakarrik ibiltzen da batetik bestera. Ikasgelan ez zaio gustatzen begirada guztien xede izatea.

Egoera ulertzeko gakoak

- Asperger sindromea duten hurrek beren burua galduta edo nahastuta ikusten dute denbora librea dutenean. Jolas-ordua eta bazkaltzeko ordua bereziki estresagarriak

izan ohi dira bi egoera horien formaltasunik ezagatik eta egitura-maila baxuagatik. Ondorioz, beren burua isolatzea gerta daiteke.

- Asperger sindromea duten zenbait haurrek zailtasunak izan ohi dituzte jolas-orduan garatzen diren jardueren arau malguak ulertzeko orduan. Gainera, gainontzeko lagunenganako harremanak zuzentzen dituzten “arauak” ulertzea ere zaila egiten zaie.
- Zenbaiten ustez, gainontzeko lagunekin erlazionatzeko orduan, kontuan hartu beharreko alderdi desberdinak gainditzea zailegia izan ohi da, baita kontaktua bi pertsonen artean bakarrik denean ere, eta horregatik nahiago izaten dute kontaktu hori saihestea edo minimizatzea.
- Kontaktua saihestea ezinezkoa denean, elkarreragina kontrolatzeko ohitura oso zorrotzak erabiltzen dituzte, edo elkarrizketarako berariazko gaiak aukeratzen dituzte.
- Antolamendu-maila baxua duten taldeetan lan egitea edo hurrez osatutako talde handi baten alboan eseri behar izatea oso esperientzia zailak bihurtzen dira haur hauen kasuan, eta Asperger sindromea duten zenbait haurren kasuan, antsietate izugarria eragiten da.
- Gainontzeko ikaskideekin kontaktua saihesteak, ikaskide horien aldetik gaixoa beldurraraztea edo gaixoaz abusatzea ekar dezake. Asperger sindromea duten zenbait haur bereziki ahulak dira txantxen eta mota horretako gehiegikerien aurrean.
- Haur hauek ikasgelako eguneroko jardunean moldatzen ikas dezakete, baina zailtasun handiak izango dituzte gehiegi ezagutzen ez dituzten jardueretan ekarpenak egiteko eskatzen bazaie.

Estrategia erabilgarriak

- Ranjiten kasuan, jolas-ordua nahasiegia edo deserosoa gertatzen bazaio, hobe da egituraketa handiagoa duten bestelako jarduerak garatzea.
- Ranjiten ikaskideek bere zailtasunak ezagutzen badituzte eta laguntza eskaintzen badiote, giroa erlaxatuagoa eta toleranteagoa izango da. Elkarri laguntzeko taldeak antola daitezke, bai eta berdinkideen taldea erabili zenbait estrategia erabilgarri erabiltzen ikasteko. “Lagunen Taldeak” (ikus *Gehiago jakin nahi izanez gero - 67 or.*), oso formula egokia dira Asperger sindromea duten ikasleei laguntzeko, bai eta ikasgelako gainontzeko ikaskideei ekarpen interesgarriak egiteko ere.
- Baliteke, Ranjitek taldeko jardueretan parte hartzera “animatzea” beharrezkoa izatea. Horretarako, pixkanaka-pixkanaka, kontaktu-maila handiagoa eskatuko dioten

jardueretan parte hartzen hastea ezinbestekoa da. Hasteko, hurbiltasun fisikoari bakkarrrik emango zaio garrantzia. Ondoren, kontaktu-maila eta lankidetz-maila areagotzea erabaki daiteke. Lankidetzajarduerak garatzeko orduan, baliteke egituraketa-maila altua eta berariazko arauak behar izatea. Ranjit bezalako gazteek arazo handiak izaten dituzte intuiziozko negoziazioarekin, bai eta egoera horietan agintzen duten konbentzioak ulertzeko orduan ere.

- Gogoan izan behar dugu ere, zenbait gaztek ez duela nahi izaten lagunik egitea edo ez dutela nahi izaten beren denbora beste norbaitekin igarotzea. Eta hori errespetatu egin behar da.

Gainontzekoek adierazitakoa ulertzea

Davidi ezinezkoa zaio bereiztea jendea noiz ari den txantxetan eta noiz ez. Ezinezkoa zaio bereiztea ere irakasleak berarekin haserre ote dauden ala ez. Badirudi ezinezkoa zaiola pertsonen sentimenduak «irakurtzea».

Egoera ulertzeko gakoak

- Beste norbaitekin hitz egiten dugunean, gauzak aditzera emateko ahozkoak ez diren zenbait seinale erabiltzen ditugu, hala nola, aurpegi-espresioa, gorputzaren mintzaira edo ikusmenaren bidezko kontaktua. Asperger sindromea duten gaixoen seinale horiek guztiak ulertzeko zailtasunak izaten dituzte.
- Asperger sindromea duten zenbait gaixok errazago entzuten eta ulertzen dute esandakoa, hitz egiten duten pertsonak ahozkoak ez diren seinale horiek baztertzen badituzte (adibidez, hizketakideari begiratzen ez badiote). Litekeena da, ahozkoak ez diren seinale horiek ez ulertzea edo seinale horiek gaizki interpretatzea.
- Zenbaitentzat oso zaila izaten da beste norbaiten “larrupean” jartzea. Baliteke beste pertsonak pentsatzen edo sentitzen duena ez antzematea, edo norbait txantxetan ari dela ez ulertzea.
- Zenbait egoeratan, gizarte-mailan onartua izateko txiste bat kontatzea bide egokia izan daiteke. Asperger sindromea duten pertsonen zailtasun izugarriak izaten dituzte “esanahi bikoitzak” ulertzeko orduan, hain zuzen, umorearen funtsezko alderdi bat diren “esanahi bikoitz” horiek.
- Gainontzekoek esandakoa ulertzeko orduan gaixo hauek dituzten zailtasunak gainditu ahal izateko, zenbait arau oso zorrotz ezartzen saiatzen da.

Estrategia erabilgarriak

- Arazoak sortzen direnean, modu argian eta ahalik eta lasaitasun handienarekin hitz egiten saiatu behar gara. Ahotsaren tonua ozenagoa bada eta adierazpen edo keinu behartuak erabiltzen badira (berez ateratzen direnak), Davidek egoera ulertzeko orduan zailtasun handiagoak izango ditu. Egoerara gehitutako informazio osagarri guztiak baliteke David larritzea edo estutzea, eta ondorioz, arreta galdu eta ez du komunikatu nahi zaion mezua ulertuko.
- Garrantzitsua da ulertzea, Davidek ezin duela “lerroartean esaten dena” irakurri. Aditza eman nahi duguna zehaztasun handiz adierazi behar da, bereziki gizarte-egoera desberdinetan agertu beharreko portaerari buruz ari bagara.
- Baliteke Davidek egoera jakin batzuei buruzko informazioa behar izatea, hala nola, norbait txantxetan noiz ari den jakitea (eta ez beldurrarazten); egoera jakin batzuetan pertsona batek izan ditzakeen sentimenak; nola jakin norbaitek zerbait “nahita” egin ote duen (eta ez nahi gabe). Litekeena da, Davidek egoera horiek guztiak modu logikoan edo “arauei jarraituta” ulertzeko beharra izatea, intuizioz ulertu beharrean, gainontzeko gehienok egiten dugun bezalaxe.
- Davidek beste pertsonen ikuspegiaren inguruan pentsatzea eskatzen duten elkarre-raginezko jolasak eta jarduerak erabilgarriak izan daitezke. Pixkanaka-pixkanaka ikasiko du, eta oso garrantzitsua da esperientzia horiek guztiak eguneroko bizitzan nola erabili irakastea.
- Baliteke egoera jakin batzuetan azaldu beharreko portaera zein den irakatsi behar izatea (adibidez, norbait haserre badago zein jarrera azaldu). Litekeena da Davidek arazoak edukitzea modu naturalean edo berez erantzuteko, baina egoerak okerrera egitea saihesteko zer egin irakatsi ahal zaio. Zinez, Davidi “gidoia” eman besterik ez da egin behar.

Zer egin lagunak galtzean?

Tom haserretzean zapuztuta geratzen da, eta amorraldiak hartuta kolpeka hasten da.

Egoera ulertzeko gakoak

- Asperger sindromea duten gaixoak beren zailtasunez ohartzen dira eta baliteke lagunak egiteko gogo bizia edukitzea (ikus *Emozio-mailako zailtasunak - 49. or.*).

- Gainontzeko guztiak hitz egiten ikusten badituzte ere, baliteke gizartean garatzen den edonolako “berriketaldiekin” lotutako gako informalak ez antzematea. Eta horrek frustrazioa dakar.
- Honelako egoerak gatazkatsuagoak izan ohi dira nerabezaroan, hain zuzen adiskidetasuna elkarrekiko enpatian eta ulermenean oinarrituta dagoen garaian.
- Asperger sindromea duten pertsonak behin eta berriro saiatzeko dira lagunak egiten, nahiz eta ez duten beti lortzen; eta jendearekin harremanetan jartzean behin eta berriro hainbat eskakizuni erantzun behar zaie, eta horrek guztiak estres izugarria eragiten du gaixo hauen artean. Ondorioz, portaera oldarkorrek ager daitezke.
- Asperger sindromea duten gizabanakoak ez dira beren sentimenduez ohartzen (ezta gainontzekoen sentimenduez ere). Eta beren sentimenduez ohartzekotan ere, baliteke ez konturatzea gainontzekoak ere ohartzen direla, eta ondorioz, laguntza eskain dezaketela.

Estrategia erabilgarriak

- Tomek adi egoteko aginduko dioten barne-seinaleak antzemateko laguntza behar du, bai eta egoera gatazkatsuei aurre hartzeko ere. Haserretzen denean, edo estresatzen denean, zer egin esango dion “gidoi” bat edo zerrenda bat edukitzea lagungarri gerta da kioke. Baliteke gidoia edo zerrenda idatzi eta berarekin eramateko premia edukitzea. Lasaitzen lagunduko dioten edo egoera jakin bat saihesten lagunduko dioten estrategiak izan daitezke. Eta Tom animatu egin beharko dugu “gidoi” horiek erabiltzera.
- Nahi eta nahi ezkoa da Tomen ikaskideak egoeraren aurrean sentikortzea, hartara Tomek bizi dituen zailtasunak uler ditzaten. Horrez gain, lagungarria izan daiteke Tomen ikaskideak “ikaskide-lankideen sisteman” integratzea, edo “Lagunen Taldeak” (ikus *Gehiago jakin nahi izanez gero - 67. or.*) bezalako ikuspegi formalagoetan integratzea. Ikuspegi horien eskutik ikaskideek Tom taldekide bezala onartzea lor daiteke. Tomen ikaskideak eredu bikaina izan daitezke berariazko trebetasunen garapenerako.
- Tomentzat lagungarria izan daiteke modu erregularrean eta finkoan irakasle jakin baten laguntza jasotzea. Bizi duen historiari buruz duen ikuspegi azaltzea ere lagungarri gerta daiteke.
- Eguneroko estrategiak (sariak eta zigorrak) ez baztertzea ere oso garrantzitsua da. Tom bezalako haurrek eta gazteek berariazko arau zehatzak edukitzea eskertzen dute, bai eta horiek aldeztu aurretik zehaztutako sariarekin lotuta egotea ere.

Zer egin etenaldiak saihesteko

Hitz egiten ari naizela, William-ek behin eta berriro eteten dit hizketaldia; ikasgela osoarentzat hitz egiten dudanean edo ikasle jakin batentzat bakarrik hitz egiten dudanean egiten du.

Egoera ulertzeko gakoak

- Asperger sindromea duten gaixoek zailtasun larriak izaten dituzte elkarrizketa batean noiz hitz egin jakiteko. Baliteke etenak eta parte hartzeko gonbitea luzatzen dieten seinaleak bereizten ez jakitea.
- Baliteke, elkarrizketan sartzeko modu bezala, iruzkinak egiteko edo beren hizketakideen iruzkinekin jarraitzeko trebetasun nahikoa ez edukitzea.
- Asperger sindromea duen gaixoa benetan obsesiona daiteke gai edo pentsamendu jakin batekin, eta berau jakinarazteko beharra sentitu.

Estrategia erabilgarriak

- Taldeko egoeretan, objektu bakar bat erabiltzea (harri bat edo pilota bat), eta objektua eskuetan duen pertsonak bakarrik izango du hitz egiteko eskubidea.
- Beharbada, Williami azaldu egin beharko zaio, elkarrizketa batean eten bat gertatzen denean, orduan dela iruzkin bat egiteko unea. Eta baliteke aipatu etenak bereizten ikasteko praktikatu behar izatea. Zeregin honi dagokionez, telebistako saioen bideoak oso erabilgarriak izan daitezke.
- Eta Williamek, oraindik elkarrizketa batean noiz eta nola parte hartu bereizteko arazoak baditu, seinale bat ados daiteke, eta seinale hori erabiliko dute laguntza moduan Williamen hizketakideek, bai ikaskideak izan, bai helduak izan.

Zer egin oiheskeria saihesteko?

Sarritan, Jordan desatsegina egiten da. Pertsona heldu baten antzera hitz egiten du, gainontzeko haurrei kargu hartuz.

Egoera ulertzeko gakoak

- Asperger sindromea duten haurrek, entzuten duten hizkuntzako zatiak kopiatuz bereganatzen dituzte hitz egiteko trebetasunak. Eta helduen hizkuntzaren zatiak ko-

piatzeaz gain, helduek erabiltzen duten intonazioa eta hitz egiteko hartzen duten jarrerara ere kopiatzen dituzte.

- Asperger sindromea duten pertsona askok ez dituzte berez ulertzen gizarte-mailako arauak eta egoera jakin batzuetan azaldu beharreko jarrera. Baliteke pertsona helduekin ikaskideekin bezala jokatzera, eta alderantziz.

Estrategia erabilgarriak

- “Lagunen Talde” bat (edo antzekoa) eztabaida bezala erabiltzea, non Jordani azalduko zaion bere hizkuntzak zein eragin duen taldean.
- Jordanek aukera desberdinak behar izango ditu bere ikaskideek gainontzekoekin hitz egiteko eta jarduteko duten modua behatzeko. Horrez gain, eredu horietan oinarritutako estrategiak entseatzera eta martxan jartzera animatuko dira. Bideoa oso erabilgarria izan daiteke, Jordani “zuzeneko” egoerak estresagarriak iruditzen bazaizkio.
- Erabilgarria izan daiteke ere, Jordani berari buruzko bideoak erakustea, non okerreko moduan jarduten ikusiko duen bere burua; aldi berean, portaera zuzena zein den azpimarratuko zaio. Baina hori guztia kontu handiz egin beharko da, Jordanen autoestimua ez kaltetzeko.

KOMUNIKAZIOA

Arauk jarraitzeko zailtasuna

Pertsona heldu batek haurren talde bati aginduak ematen dizkionean, badirudi Sula adi entzuten ari dela, baina ondoren, ez da gai agindutakoa betetzeko, gainontzekoak imitatzen ez baditu.

Egoera ulertzeko gakoak

- Asperger sindromea duten zenbait pertsonari ezinezkoa zaie taldeko aginduak ulertzea; beharbada, beraiek ere taldeko kide direla ulertzen ez dutelako da, eta ondorioz, aginduak beraiengana ere zuzentzen direla ulertzen ez dutelako.
- Asperger sindromea duten zenbait gaixok oso ondo disimulatzen du, eta hitz egiten ari denari arretaz entzuten diotela dirudi, horrela inork errieta egitea saihesten dute-larik.
- Beste zenbaitek esandakoa edo adierazitakoa ulertzeko trebetasuna mugatuta dute. Ondorioz, ez dute ulertzen helduek taldeari hitz egiten diotenean erabiltzen duten hizkuntza (ikus *Helduen hizkuntza ulertzea* - 28. or.).
- Asperger sindromea duten zenbait gaixok hainbat ordezeko estrategia garatzen dituzte, eta taldeko aginduak jarraitzeko gai ez direnean horiexek erabiltzen dituzte. Askotan erabiltzen duten estrategia da gainontzeko haurrek egiten dutena imitatzea, horrela ulermen-mailako arazo larriak nolabait ezkututzen dituzte-larik.

- Batzuetan, motibazio eskasaren eraginez, Asperger sindromea duten hurrek eta gazteek ez dute beharrezkoa den ahalegina egiten esandakoa arretaz entzuteko eta emandako aginduak prozesatzeko.

Estrategia erabilgarriak

- Beharbada, Sularen kasuan, taldeari emandako aginduak berari bakarrik errepikatu behar zaizkio. Eta zeregin hori pertsona desberdinek buru dezakete: (a) Sulari laguntzeko zeregina betetzen duen pertsona heldua; (b) aginduak eman dituen pertsona; edo (c) lagun bat. Oso garrantzitsua da Sulak pertsona desberdinek emandako aginduei erantzuten ikastea (ikus *Lanerako trebetasunak: Gehiegizko mendekotasuna - 61. or.*).
- Beharbada, pertsona helduak, aginduak eman baino lehen, Sularen izena esaten badu, Sula ohartuko da bera ere taldearen baitan sartzen dela, eta ondorioz, helduak emango duen agindua berari ere badagokiola.
- Egoera informaletan, Sulak taldeko egoeretan erabiltzen den hizkuntza ulertzen duela baieztatu behar da. Eta hizkuntza hori ulertzen ez badu, zailtasun-maila murrizten saiatuko gara, horretarako gako-hitza duten esaldi laburragoak erabiliko direlarik, eta perpaus zailak saihestuko direlarik. Horrela jokatzeari onuragarria izango da bai Sularentzat, bai taldeko kideentzat.
- Taldeari emandako agindu baten aurrean, taldekideek emandako erantzuna imitatzeari eta lehen aipatu ditugun estrategien erabilera sustatu behar dira.

Helduen hizkuntza ulertzea

Davidek oso mutil azkarra dirudi eta hiztegi bikaina erabiltzen du, baina ikasgelan zer edo zer azaltzen dudanean, ulertzen ez duela dirudi.

Egoera ulertzeko gakoak

- Asperger sindromea duten hurrek oroimen ona izan ohi dute (bereziki gertaerak gogoratzeko), eta hiztegi oso zabala lan dezakete. Hori ikusita, gerta daiteke hizkuntza ondo ulertzen dutela pentsatzea, eta bereziki kontzeptu abstraktuak. Hain zuzen, sarritan, Asperger sindromea duten hurrek, beren pentsamenduaren maila jakin batean, hizkuntza ulertzeko duten moduaren arabera jarduten dute.

- Taldeko aginduei edo azalpeni arreta jartzea bereziki zaila gerta daiteke Asperger sindromea duten gaixoen kasuan. Baliteke gertatzen ari denaren alderdi garrantzitsuenak ez antzematea, eta garrantzi gutxiko xehetasunetan geratzea.
- Asperger sindromea duten hurren kasuan, zenbat eta azalpen edo agindu luzeagoak eman, eta zenbat eta abstraktuagoak izan ideiak, orduan eta zailtasun handiagoa izango dute horiek ulertzeko.
- Asperger sindromea duen pertsonak hizkuntza oso literalki ulertzen du. Hizkuntza idiosinkratikoa, metaforak eta hizkuntzaren erabilera jakin batzuk, hala nola txistekak edo sarkasmoa, normalean, literalki interpretatzen dituzte.
- Asperger sindromea duten hurrek gizartean izaten dituzten zailtasunek hizkuntzaren ulermenean arazoak eragin ditzakete. Hitzak ulertzeko gai badira ere, baliteke hizketakidearen helburua edo mezua ez ulertzea. Hizkuntzarekin duten arazo honen ondorioz, Asperger sindromea duten haurrak oso sentiberak dira txantxen aurrean, esate baterako, sarkasmoaren aurrean, hau da, hitzen bidez ideia bat adierazten den bitartean, ahozkoak ez diren keinuekin beste zer edo zer adierazten denean.
- Zailtasun horiek okerrera egiten dute portaera-mailako arazoak kontrolatu nahi direnean. Zinez esan nahi dena, ahozkoak ez diren seinaleek eta helduek hitz egiterakoan berez jartzen duten emozioak iluntzen dute.

Estrategia erabilgarriak

- Davidi hitz egin *baino lehen*, bere arreta bereganatzen saiatu behar dugu (bereziki agindu zehatzak eman nahi direnean). Taldeko egoeretan, agindua ematen ari den pertsonarengandik ahalik eta hurbilen kokatzea komeni da, eta gaixoa hitz egiten ari den pertsonak esandakoari arreta jartzeko motibatzea (sari batekin). Agindua eman *baino lehen* Daviden izena esatea komeni da.
- Daviden arreta bereganatzeko eta motibatzeko, berarentzat interesgarria den gai bat aukera daiteke, esate baterako: “*Beranduago erlojuei buruz hitz egingo dugu, baino lehenago ... egitea nahi nuke...*”
- Aginduak eta azalpenak antolatzeko moduaren inguruan gogoeta egitea erabilgarria da:
 - alde zurretik, puntu nagusien laburpena egitea (baita zerrenda bat lantzea ere)
 - puntu nagusietara iritsi baino lehen abisatzea

- gauzak errepikatzea eta laburbiltzea
- informazioa sekzio koherente desberdinetan antolatzea eta bereiztea
- gauzak esplizituki azaltzen saiatzea, eskolan lantzen diren gaietarako alde zaharretik erretiko ezagupenen artean konexioak ezarriko direlarik.
- Hitz egiteko orduan azkarregi ez egitea komeni da, bai eta hitz egiterakoan etenak egitea ere, hartara haurrak jasotzen duen informazioa prozesatu ahal izateko.
- Grafikoak eta marrazkiak oso lagungarriak izan daitezke David bezalako haur bantentzat. Zenbait kontzeptu eta informazio grafikoki adieraz daitezke, eta aurrerago, diagramen eta gako-hitzen bitartez.
- Zaila bada ere, ahalik eta hizkuntza errazena erabili behar da, esaldi labur eta zuzenekin, eta ideien artean lotura esplizituak adieraziz. Parafraasi argigarriak ere erabili daitezke.
- Hizkuntza espezializatua, abstraktua edo ez-literala erabili behar bada, Davidi pertsonalki ohartaraztea komeni da, bere jardunean horrelakorik aurkitu baino lehen.
- David ahalegintzea ezinbestekoa da. Bereziki garrantzitsua da bere arreta eta ulermenaren kontrolatzea ikastea. Elkarrizketaren haria galduz gero, edo esandako zer edo zer ulertzen ez badu, nola jokatu azaldu behar zaio, bai eta bere zalantzak argitzeko galderak egitera animatu ere.
- Daviden okerreko portaera zuzendu behar bada, erabiliko dugun hizkuntza ahalik eta errazena izango da, eta tonua neutroa. Portaera egokia zein den erakutsi behar zaio, eta ondorioak zeintzuk diren erakutsi. Ondoren, esandakoa Davidek ulertu ote duen baieztatu behar da. Mota honetako azalpenei dagokienez, gauzak zuzenago eta zehatzago esan beharko dira, egoera berezia baita. Davidek azaldutako okerreko portaera baten inguruan azalpen luzeak ematea, eta haurra egoera arrazoitzera behartzea kaltegarria izan daiteke.
- Asperger sindromea duten zenbait haurrek hobeto entzuten eta ulertzen dute hizketakideari begiratzen ez badiote, izan ere, hizketakideak erabiltzen dituen ahozkoak ez diren seinaleek haurra nahastu edo haurraren arreta beregana dezakete (betiere haurra entzuten ari bada).
- Laguntzailerik izanez gero, laguntzailea izango da interpretea, bereziki agindu eta azalpen luzeen kasuan.

Jhonek hitzez hitz interpretatzen du esandako guztia. Telefonoa hartzen duenean, eta beste aldetik «Zure ama etxean al dago?» galdetzen diotenean, berak «Bai» erantzuten du, baina ez da amaren bila joaten.

Egoera ulertzeko gakoak

- Asperger sindromea duten pertsonen gainontzekoek esaten dutena modu literalean eta zehatzean interpretatzea normala da.
- Hitz egitean erabiltzen diren adierazpenek (adib.: hankak luzatzea), umoreak eta ironiak arazoak ekartzen dituzte.
- Eskolan oso normala da hitz egiteko zeharkako moduak erabiltzea (adeitsuagoak), hala nola, *–Jasoko al zenituzke liburuak?, edo axola al zaizue ... egitea?* Zinez, aginduak dira, baina Asperger sindromea duten pertsonen galdera bezala uler ditzakete.
- Asperger sindromea duten gaixoen hizketakidearen helburua eta motibazioa interpretatzeko dituzten zailtasunen ondorioz sortzen dira, neurri batean, pertsona hauek gauzak interpretatzeko dituzten zailtasunak. Hortaz, ahozkoak ez diren adierazpenen esanahia aurkitzea ezinbestekoa da gauzak ulertzeko, eta horretarako, neurri handi batean, hizketakidearen lekuan jarri behar da.

Estrategia erabilgarriak

- Ia ezinezkoa izango litzateke, eta gainera, ez litzateke naturala izango, esaera eta elkarrizketa-forma guztiak baztertzea. Hala ere, garrantzitsua da, esandakoa baieztatzea, eta hala behar izanez gero, esaldia berriro egituratzea. Esate baterako *–Utzi bost minutu gehiago–* beste modu batean egitura daiteke, hala nola *–Zortzietan hitz egingo dut zurekin, programa hau ikusi ondoren.*
- Bereziki agindu garrantzitsuak eman nahi direnean, esaldi errazak, laburrak eta zuzenak erabiltzea komeni da. Lortu nahi denari garrantzi berezia eman behar zaio, eta ez lortu nahi ez denari (adib.: *“Isilik, mesedez”* esango dugu, *“Ez dut zarata gehiago entzun nahi, eskerrik asko”* esan beharrean).
- John bere ulermena kontrolatzera animatu behar da. Zerbaite ulertzen ez duenean zer egin behar duen azaldu behar zaio.

- Johni gehien erabiltzen diren elkarrizketa-esapideak irakatsi behar zaizkio (adib.: “*minutu batean*”, eta abar).
- Baliteke Johnek umorea edo txisteak ez ulertzea. Pixkanaka-pixkanaka has daiteke bera ere txantxetan, baina okerreko erabilera emango dien txantxak ez erabiltzea gomendatuko diogu.

Keinuketa gehiegi edo bat ere ez

Richard-ek nirekin hitz egiten duenean, jarrera zurruna agertzen du, gudari bat dirudi, besoak alboetan ditu, modu monotonoan hitz egiten du eta aurpegian ez du inolako espresio berezirik.

Egoera ulertzeko gakoak

- Asperger sindromea duten pertsonen komunikazioa osatzen duten alderdi orotan dituzte arazoak, komunikazioa ahozkoa izan zein ez-ahozkoa izan.
- Sarritan, beste pertsonen gorputz-mintzaira eta aurpegi-espresioa interpretatzeko eta ulertzeko arazoak izaten dituzte, bai eta komunikatzeko modu horiek espontaneoki eta modu egokian erabiltzeko orduan ere.
- Asperger sindromea duten pertsonen, egunero erabiltzen diren ahozkoak ez diren komunikazio-trebetasunak ikasi behar dituzte. Baliteke gaixo hauentzat zaila izatea trebetasun horiek ikastea, bai eta bat-batean eta modu malguan erabiltzea ere.

Estrategia erabilgarriak

- Richardek bizi dituen zailtasunak ikasgelako ikaskideei azaltzea eta Richardengana tolerantzia handiagoa azalduko duen portaera sustatzea komeni da. Baina hori egin baino lehen, Richarden eta bere gurasoen baimena lortzea gomendagarria da.
- *The Social Use of Language* [Gizarte-harremanetarako hizkuntza Erabiltzeko Programa] (Rinaldi, NFER) lanean proposatzen diren irakaskuntza-zerrenda eta iradokizunak erabiltzea berariazko zenbait trebetasun lantzeko orduan. Ahal bada, berdinkideen artean laguntzeko talde bat antolatu, hala nola Lagunen Taldeak. Adibide moduan erabil daitezke (ikus *Gehiago jakin nahi izanez gero - 67. or.*).
- Richardi testuinguru errealean erabiltzeko estrategia egokiak irakatsi behar zaizkio, esate baterako, jolas-orduko patioan erabiltzeko, edo eskolako jarduerak garatzen diren bitartean erabiltzeko.

- Richardek keinu gehiegi egiten baditu, zenbait estrategia irakatsi ahal zaizkio jarra-hori zuzentzeko, hala nola, eskuak poltsikotan sartzea, eskuarekin zerbait hartzea, eta abar.
- Richard animatu egin behar dugu ahal duen gizarte-jarduera, txango eta talde guztietan parte hartzera. Elkarrizketa batean, hitz egiteko azaltzen duen trebetasuna azpimarratuko dugu eta ahal den neurrian, taldeko jardueran murgiltzea ahalbidetuko dugu.

Ozenegi edo azkarregi hitz egitea

Leonek ozenegi hitz egiten du, eta berarekin hitz egiten ari dena lotsarazten du.

Egoera ulertzeko gakoak

- Asperger sindromea duen pertsona batek, baliteke beste pertsona batek sentitzen edo pentsatzen duena ondo ez interpretatzea, eta ez du ulertzen, pertsona horiek lotsatu egiten direla bere portaera ikustean.
- Litekeena da, Asperger sindromea duten gaixoez zailtasunak edukitzea ahozkoak ez diren adierazpenez eta gorputz-mintzairaz ohartzeko, hala nola, beste pertsonen senti dezaketean lotsaz.
- Baliteke komunikazioaren “gizarte-arauak” inplizituki ez ikasi izana, pertsona gehienek egiten dutenaren aurka. Litekeena da, gizartean azaltzen duten portaera desegokia dela ez ulertzea.
- Asperger sindromea duen pertsona batek ahotsaren ozentasun desegokia erabiltzen badu, gaixoak, bizi duen egoeraren aurrean, antsietate handia edukitzea gerta daiteke.
- Asperger sindromea duten pertsonen ozenegi edo baxuegi hitz egiten dute, edo azkarregi edo motelegi.

Estrategia erabilgarriak

- Lehenik eta behin, Asperger sindromea duen gaixoak ondo entzuten duela baieztatzea behar da.
- Leonek erabiltzen duen ahotsaren ohiko ozentasuna modulatu behar da, eta praktikara eramateko aukerak eskaini. Ahotsaren ozentasun egokiarekin praktikak egite-

ko egoera desberdinak lan daitezke. Hasteko, ahotsaren ozentasuna erraz kontrolatzen den egoerak hartuko ditugu, zailtasun handiagoko egoeretara iritsi arte.

- Seinale bat erabil daiteke, adibidez keinu bat, Leoni ozenegi hitz egiten ari dela adierazteko.
- Leon grabatzeko grabagailu bat edo bideo bat erabili. Egindako grabazioa erakutsi eta erabilitako ahotsaren ozentasuna ebaluatzeko eskatuko zaio. Hala ere, gogoan izan, honako teknika hau kontu handiz erabili behar dela, hartara Leonen autoestimua ez kaltetzeko.
- Ahotsaren ozentasun egokia erabiltzeagatik saritzea.

Galdera errepikakorrak

Jeremyk, asteak daramatza behin eta berriro galdera berbera egiten. Berak nahi duen erantzuna lortzen ez duenean haserretu egiten da, nahi duena lortu arte.

Egoera ulertzeko gakoak

- Asperger sindromea duten zenbait gaztek oso elkarrizketa zurrunik garatzen dituzte eta behin eta berriro erantzun berbera entzutea gustatzen zaie. Esate baterako, honako galdera hau egitean: “*Noiz pizten dira kale-argiak?*”, erantzun bezala “*–Iluntzean–*” espero du Asperger sindromea duen pertsonak, eta “*–Gaua iristean*”, erantzuten bazaio haserretu egingo da.
- Baliteke, zenbait kasutan, galdera errepikakorrak erabiltzea hitz egiten jarraitzeko: baliteke elkarrizketa modu naturalagoan garatzeko trebetasunik ez edukitzea.
- Asperger sindromea duten zenbait pertsonaren kasuan, galdera errepikakorrak egitean antsietatea arintzen da, bereziki galderak egunean zehar gertatuko denarekin erlazionatuta daudenean.

Estrategia erabilgarriak

- Hasteko, Jeremyk komunikatzea lortzeko egiten duen ahalegina errespetatzea gomendatzen dugu, eta bere galderak egiteko denbora uztea. Horrela, Jeremy lasaitzea lortuko dugu, eta aldi berean, erabilgarritasun handiagoko elkarrizketa bat garatzea ahalbidetuko dugu.

- Jeremyri erlaxatzeko estrategia egokiak eskainiko dizkiogu, eta horiek nola erabili irakatsi, hala nola, eskolatik at walkman bat entzutea, gehien atsegin duen liburua irakurtzea edo estresa arinduko dion jostailu bat erabiltzea, edo erabilgarria izan daitekeen bestelako jarduera bat garatzea.
- Ikus-informazioa ematea, hala nola ordutegia, hartara egunean gertatuko denaren jakinaren gainean egongo da Jeremy, eta ez du galdetu beharko.
- Galdera obsesiboen aurrean, pixkanaka-pixkanaka erantzunak aldatzea edo moldatzea. Adibidez, “–*Joan al naiteke?*” galderaren erantzun ohikoena da “–*Bai, joan zaitzake*”, eta erantzunarekin batera buruarekin edo eskuekin baieztako keinua egiten da; pixkanaka-pixkanaka, ahozko erantzuna murriztu egingo da, eta keinua egitea nahikoa izango da.
- Jeremyren galdera errepikakorrak, ikasteko bitarteko bezala erabiltzea. Agindu bat bete bezain pronto egindako galderari erantzungo zaiola azaldu behar zaio Jeremyri.
- Galdera errepikakorrei erantzuteko denbora mugatzea, adibidez: “–*Orain ezin dizut erantzun, baina hamaiketan, bost minutu izango ditut zurekin hitz egiteko*”. Oso garrantzitsua da mota honetako promesak betetzea.
- Mota honetako galderak leku mugatu batzuetan bakarrik erabiliko dira, hala nola, jolas-patioan. Garrantzitsua da leku horretara pare bat alditan joatea egunean.
- Mota honetako galderak mugatzeko orduan esplizitua izaten saiatzea, eta elkarrizketa egokiago batean parte hartzera gonbidatzea: “–*Honako galdera hau aspergarria da, zergatik ez didazu beste zerbait galdetzen?*” edo, “–*Hitz egin ... buruz...*” (ikus *Elkarrizketarako gai obsesiboak* - 37. or.).

IRUDIMENA ETA ZORROZTASUNA

Elkarrizketarako gai obsesiboak

Oso zaila da Michael-ekin hitz egitea, ordulariei buruz bakarrik hitz egiten du. Hain da aspergarria!

Egoera ulertzeko gakoak

- Asperger sindromea duten pertsonen ezaugarri komun bat da interes obsesibo bati buruz bakarrik hitz egitea, entzuleak eskaintzen duen arretari inolako jaramonik egin gabe.
- Mota horretako obsesio baten helburua, bestelako erritual desberdinen kasuan bezalaxe, antsietatea murriztea da.
- Baliteke Michaelek honelako estrategia bat jarraitzea elkarrizketan parte hartzeko, bestela ez baitu beste modurik ezagutzen.

Estrategia erabilgarriak

- Gai bati buruz etengabe hitz egiteko arrazoiak ulertzea garrantzitsua da, bai eta gai jakin hori pentsamenduaren eta elkarrizketa ororen oinarrian agertzeko maiztasuna murriztea ere. Gaixoari bere interesei buruz hitz egiteko “une bereziak” zeintzuk diren azpimarratuko zaio, eta interes horiek baztertzeko uneak zeintzuk diren ere bai.

- Asperger sindromea duten gaixoen kasuan, zeregin bat amaitzeko pizgarri bezala, gaixoak gustuko duen gaiari buruz hitz egitea planteatu daiteke.
- Elkarrizketa obsesiboaren eskutik Michaellek bere antsietatea gaintzea lortzen badu, laguntzeko modu desberdin gehiago bilatu behar dira. Michael kezkatzen duen arazoak baztertzen saia gaitzke, edo aukerako metodoak eskaini erlaxatzeko.
- Michael goraiatzeko dela ziurtatzea, eta bere interesei buruz hitz egiten ez duenean jaramon egiten zaiola ziurtatzea (nahiz eta denbora-tarte labur batean bakarrik izan).
- Michaelen arreta gustuko duen gaiari buruz hitz egitera bideratzea, elkarrizketaren mekanismoei eta gai zehatz bati erantzuna emateko mekanismoei buruzko eza-gupena garatzeko modu bezala.
- Michaeli irakatsi behar zaio ordulariei buruz hitz egiteko une egokia noiz den, bai eta norekin hitz egin dezakeen gai horri buruz. Gauzak oso esplizituki azaldu behar zaizkio.
- Michael obsesionatzen duen gaia egokia bada, aukera desberdinak bilatuko ditugu Michaellek bere interes berberak dituzten pertsonekin gaia garatzeko.
- Michaelen onspena lortu ondoren (bai eta partaidetza ere), ikaskideei irakatsiko zaie, Michael behin eta berriro errepikatzen duen gaiarekin erabat aspertuta daudela nola adierazi (gako-hitz bat erabil daiteke, edo aldeztatik adostutako seinale bat).

Arauek betetzeak duen garrantzia

Yatin-ek arauak oso ondo betetzen ditu. Haurrek arauak errespetatzen ez dituzten egoeretan, Yatinekin helduaren rola bere egin eta haurrei kargu hartzen die.

Egoera ulertzeko gakoak

- Arau esplizituen eskutik muga erabilgarriak zehaztuko ditugu, eta Asperger sindromea duten pertsonen kasuan arau esplizituak erabiltzen dira gidari bezala.
- Pentsamenduaren malgutasunik ezaren ondorioz, Asperger sindromea duten pertsonak baliteke ez konturatzea, zenbait egoeratan, arauak ez betetzea gerta daitekeela, edo arau horiek negoziatzea edo apurtzea gerta daitekeela.
- Asperger sindromea duten zenbait gaixok ez dute beste pertsona baten ikuspegia ulertzen, eta ezin dituzte ulertu araua behar bezala ez betetzeko izandako arazoak.

- Asperger sindromea duten hurrek beharrezkoa dute nolabaiteko antolamendua eta egonkortasuna. Arauak aldatzen badira, edo malguak badira, antsietatea eragin dezakete. Eta gaixo hauek duten estrategia bakarra helduaren rola bere egitea da, rol hori egokia ez bada ere.

Estrategia erabilgarriak

- Yatinek edozein arau zehatz beteko duela kontuan hartu behar da. Hortaz, arauak hitzez aditzera emateko orduan kontu handia eduki behar dugu, eta arau horiei nolabaiteko malgutasuna eman behar zaie.
- Yatinek zailtasunak izango ditu arauak urratzeko izandako arrazoiak ulertzeko; hobe da pertsona heldu batek egoera ondo azaltzea, eta bereziki azpimarratuko zaizkio jendeak arauak ez errespetatzeko dituen arrazoiak.
- Yatini azaldu beharko diogu, kontu handiz, bere ikaskideek ez dutela onartzen berak helduaren rola hartzea eta errieta egitea. Bere kezkek adierazteko eta kontrolatzeko aukerako bideak irakatsi behar zaizkio. Bide berri horiek errealitatean garatu eta egoera egokietan horien erabilera sustatu behar ditugu.
- Yatinentzat zenbait “Gizarte Kontakizun” idatziko dira, jendeak zenbaitetan arauak ez betetzeko dituen arrazoiak aditzera emateko (ikus *Gehiago jakin nahi izanez gero - 67. or.*).

Fobiak

Susanekek beldur izugarria die txakurrei. Beldurraren beldurrez, ez du etxetik irten nahi, ezta lorategira joan ere.

Egoera ulertzeko gakoak

- Asperger sindromea duten pertsonen, egoera desberdinak zorrotasun handiz erlazionatzen dituzte, izan ere, erlazioak definitzeko oinarri bezala esperientzia bakar bat izaten dute. Iraganean, egoera edo esperientzia baten ondorioz larritasuna eragin bada gaixoarengan, antzeko beste egoera edo esperientzia bat bizitzean ere larritasuna eragingo da. Asperger sindromea duten gaixoen sentitzen duten beldurra, egoera desberdinetara hedatzea gerta daiteke.
- Fobia oren kasuan gertatzen denez, beldurra eragiten duen arrazoi saihestean, beldur hori neurritz kanpoko bihurtzen da, eta Asperger sindromea duen pertsonak ez du ulertzen txakur gehienek ez dutela kalterik eragiten.

Estrategia erabilgarriak

- Lehenik eta behin, ahal bada, Susan beldurrarazten duen arrazoia zein den aurkitzen saiatu behar dugu: txakurraren ilea, zaunkak, buztana, eta abar. Horretarako, zuzenean Susani galdetzea da. Asperger sindromea duten pertsona gehienak beren beldurrei buruz hitz egiteko gai dira, baina askotan, galdetzea ahaztu egiten zaigu. Susanek txakurren aurrean sentitzen duen fobia arrazoizkoa eta ulergarria izan daiteke. Susan bere beldur irrazionalei buruz hitz egiteko gai ez bada, jarraian aipatuko ditugun estrategiak erabiltzea egokia gerta daiteke, orokorrean.
- Susanek sentitzen duen fobia ulertu ondoren, helburu errealistak planteatu behar dira. Baliteke txakurrekin kontaktu fisikoa edukitzera behartzea egokia ez izatea, baina lor daiteke, distantzia utzita, txakurrei inolako beldurrik gabe begiratzea.
- Susanen fobia arintzen saiatu behar dugu. Honako prozesu honen oinarritzko printzipioa da antsietatea eragiten duen iturrira pixkanaka-pixkanaka hurbiltzea, Susan erlaxaturik dagoen bitartean. Metodo egokia da, Susan jarduera atsegin bat garatzen jartzea (hala nola izozki bat jatea edo gehien atsegin duen jostailuarekin jolastea), eta bitartean, alboan, txakur baten zaunkak igortzen dituen kasete bat jartzea. Ondoren, pixkanaka-pixkanaka, argazkiak eta bideoak erakutsiko zaizkio, eta azkenik, txakur bat jarriko da Susanen parean, distantzia jakin batera. Susanek aipatu prozesua bere erritmora garatzea ezinbestekoa da, eta beldurra eragiten dion arrazoia erakusten zaion bitartean, esperientzia atseginak eta lasaigarriak aurkeztuko zaizkio.
- “Gizarte Kontakizun” bat oso erabilgarria gerta daiteke Susanek txakurrei buruz dituen ideiak azalertzeko eta txakurren aurrean nola jokatu irakasteko (ikus *Gehiago jakin nahi izanez gero - 67. or.*).

Gauzak egiteko modua aldatzea

Gauzak alde zurretik zehaztutako moduan egitea atsegin du Hugh-ek. Errutina eteten saiatuz gero, haserretu egiten da.

Egoera ulertzeko gakoak

- Asperger sindromea duten pertsonen gertatuko dena aurreikusteko arazoak dituzte. Hori dela eta, zenbaiti, gauzak alde zurretik zehaztutako moduan egitea atsegin zaio. Nolabaiteko antolamendu bati jarraitzeak segurtasuna eta ongizatea dakarkio gaixoari; baina errutina hori aldatuz gero, gaixoak sentitzen duen segurtasuna mehatxatuta geratzen da, eta ondorioz, antsietatea sortzen da.

- Asperger sindromea duten zenbait pertsonak, zer edo zer egiten hasten badira, hasitakoa nahi eta nahi ez amaitzeko sentimendua izaten dute. Ohitura konpultsibo horrek du lehentasuna, eta gerta daiteke, egiten ari direna amaitzen ez badute benetan haserretzea.

Estrategia erabilgarriak

- Pixkanaka-pixkanaka Hughek egunero garatzen dituen jardueren iraupena murrizten saiatuko gara. Hasteko, jarduera osatzen duten urratsetako bat aukera daiteke. Oso erabilgarria gerta daiteke seinale artifizial bat erabiltzea, hala nola alarma bat, jardueraren urrats zehatz horren iraupenaren amaiera adierazteko. Hasiera batean, jarduera osatzen duen urrats honen betiko iraupena errespetatuko da, eta ondoren, pixkanaka-pixkanaka, Hughek seinalea ondo ulertu ondoren, tartea murriztu egingo da.
- Ohiko jarduera urrats eta fase desberdin askok osatzen badute, urrats laburrena, eta itxuran garrantzi gutxien duena, kentzen saiatu behar dugu. Hughek errazago ulertuko du aldaketa hau, berari ematen zaion ordutegian garrantzi gutxien duten urratsak agertzen ez badira (ikus *Aldaketen aurrean adi egotea - 41. or.*).
- Hughek ordutegiari atsegina hartzean, errutina osatzen duten zenbait urrats, pixkanaka-pixkanaka, ezabatzeko prest egongo gara. Une honetan, zenbait urratsetan aldaketa txikiak egitea komeni da, hartara aldaketen aurrean jarrera irekiagoa azaltzen ikasteko.
- Hughek ez du inolako arazorik jarduera bat utzi eta beranduago berriro ere ekiteko, betiere jarduera amaitu ahal izango duela ziurtatzen bazaio, izan ere, gauzak aurreikusteko arazo handiak ditu. Ordutegi bat markatu ahal zaio, eta bertan adierazi garatzen ari zen jarduera noiz amaitu ahal izango duen.

Aldaketen aurrean adi egotea

Berak espero ez duen zer edo zer egiten badugu, edo bere errutinari jarraitzen ez badiegu, Suresh haserretu egiten da.

Egoera ulertzeko gakoak

- Asperger sindromea duten haur askok beharrezkoak dituzte errutinak, eta baliteke, beraiek prestatzea errutina horiek. Gerta daiteke, eguneroko errutina jakin batzuekin “engantxatuta” egotea.

- Errutinak aldatzean, arazo handiak eragin daitezke. Izan ere, Asperger sindromea duten gaixoeek jarraian gertatuko dena aurreikusteko gaitasunik ez dutenez, izutu egiten dira.
- Espero ez diren jarduerak ere arazo berberak eragin ditzakete. Hala ere, Asperger sindromea duten zenbait pertsonak aldaketa handiak ondo onartzen dituztela dirudi, hala nola etxe aldaketa edo atzerrian oporraldia igarotzea, baina ez dituzte behar bezala ulertzen eta bereganatzen garrantzi gutxiagoko aldaketak.

Estrategia erabilgarriak

- Sureshek duen errutinen premia errespetatzea eta jarraibide argiak emango dizkion ordutegi bat finkatzea. Adibidez:
 1. Eguneroko errutinaren fase bakoitzerako hitz, marrazki edo sinbolo zehatz bat aukeratzea. Horietako bakoitza txartel batean idatzi, eta guztiak argazki-album batean hurrenkera egokian txukundu.
 2. Jarduera bati ekitean, Sureshek hasierari dagokion txartela aukeratzeko ikasi behar du, eta amaieran bere lekuan gordetzen. Txartel bakoitzaren eta dagokion jardueraren arteko erlazioa ulertzen lagundu behar zaio.
 3. Txartelen eta jardueren arteko erlazioa ulertu ondoren, errutinak egun erdi batean jarraituko duen hurrenkeraren arabera antolatu behar dira txartelak. Ondoren, gauza bera egingo da baina jardueraren iraupena egun osokoa izango da.
 4. Jarduera bati ekin baino lehen, txartela hartu eta egingo dena eta jarraian gertatuko dena zehaztu behar da.
 5. Suresh ordutegira ohitu ondoren, jardueraren baitan aldaketa bat edo pare bat aldaketa sar daitezke. Aldaketa horiek aldeztu aurretik jakinaraziko zaizkio Sureshi. Gertatuko dena aldeztu aurretik jakinarazten badiogu Sureshi, baliteke aldaketa bereganatzeko orduan erraztasun handiagoa edukitzea. Bereziki garrantzitsua da txartel bakoitzean jarduera desberdinak adieraztea, hartara, familiako errutinan jarduera berrien txartelak aurkeztu ahal izateko.
- Baliteke Sureshek arazoak edukitzea aldeztu aurretik zenbait aldaketa bereganatzeko, bereziki jarduerarekin batera leku berriak edo jende berria ezagutu behar baditu. Bideo-grabazioak edo argazkiak oso lagungarriak izan daitezke egoera berrira ohitzeko.
- Sureshentzat lagungarria gerta daiteke jarduerarekin erlazioan tutuko zer edo zer edukitzea, haur txikiek beren panpinekin egiten duten bezala.
- Gertatzen ari dena azaltzeko hizkuntza erraza eta zehatza erabiltzea, eta espero ez zen jarduera garatu ondoren gertatuko dena aditzera ematea.

SENTSORIAL ETA MUGIMEN-MAILAKO ZAILTASUNAK

Sonuen aurrean erreakzio desegokiak

Aaron, eskolako jangelan sartzean edo zarata handia egiten duen jendez gainezka dagoen taberna batean sartzean, izkina batera joaten da, belarriak eskuekin estali eta aurrera eta atzera mugitzen hasten da: ez du entzun nahi, eta nik hitz egiten diodanean, berak etengabe hitz egiten du.

Egoera ulertzeko gakoak

- Asperger sindromea duten pertsonen ezaugarri arrunt bat da berariazko zaraten aurrean duten hipersentiberatasuna edo zarata horien aurrean azaltzen dituzten erreakzio bitxiak.
- Giroko zarataren aurrean, zenbaitek, haserretu eta arreta galtzen du, adibidez, lora-tegiko sega-makinaren zarata entzutean, zerua zeharkatzen duen hegazkin bat entzutean, ikasgelan burrunba egiten duen fluoreszente bat ikustean.
- Asperger sindromea duten zenbait pertsonak belarriak eskuekin estaltzen dituzte, beste zenbaitek mahai gainean dagoenarekin jolasten du, beste zenbaitek sarri eteten ditu elkarrizketak eta beste zenbaitek isilpean kantatzen du. Horiek guztiak atsegin ez zaien soinua uxatzeko mekanismoak dira.
- Zenbaitek erraztasun handiz galtzen du arreta, eta larritzen dituzten soinuak edo zaratak entzutean arreta jartzeko zailtasunak izaten dituzte. Baliteke aipatu zaratak mingarriak izatea.

Estrategia erabilgarriak

- Zarata arrotz gehienak desagerraraztea eta berariazko soinuei konponbidea aurkitzea, hala nola, gomazko ziriak galdu dituen aulkiaren hankek egiten duten zaratarekin amaitzea.
- Jangelan, Aaronen mahaiari leku gehiago uztea, eta Aaronekin batera bi lagun eseretzea, Aaronen arazoa ulertzeko eta laguntzeko.
- Lehen aipatu dugun “Gizarte Kontakizuna” (ikus *Gehiago jakin nahi izanez gero - 67. or.*) oso erabilgarria gerta daiteke Aaroni, bazkariak irauten duen bitartean eta bazkaria amaitu ondoren gertatuko dena irakasteko, eta bide horretatik azalduko zaio, zarata modu naturalean sortzen dela eta ez bera molestatzeko edo kaltetzeko. Bazkaria amaitu ondoren, gustukoaren duen jarduera bat garatzera animatuko dugu Aaron, hartara bitzitako egoera gainditzeko laguntzeko.
- Aaronen ikuspegitik, beti egongo da bera kaltetzen edo molestatzen duen zarataren bat. Pixkanaka-pixkanaka estimulu horiek guztiak aurkeztu behar zaizkio, hartara, horietako bat gertatzean, Aaronen tolerantzia areagotzeko eta erantzun egokia emateko gaitasuna lantzeko (ikus *Irudimena eta zorrotasuna: Fobiak - 39. or.*).

Erreakzio desagokiak edo kontaktu fisikoaren okerreko interpretazioa

Alisonek jendea atsegin du, eta ikasgelan aktiboki parte hartzen du; baina inork bere aurka talka eginez gero, edo hitz egiten ari den bitartean ukitzen badu edo besarkada bat ematen badio, garrasi egiten hasten da edo kolpeka hasten da.

Egoera ulertzeko gakoak

- Asperger sindromea duten pertsonen kontaktu fisikoaren aurrean ematen duten erantzuna neurrigabea eta gehiegizkoa izan ohi da. Baliteke egoera jakin batzuetan, zenbait ukimen-mota ez atsegin izatea. Ustekabean pertsona batek ukitzen baditu beldurrez erantzuten dute, edo ihes egiten dute.
- Asperger sindromea duten pertsonen baliteke besarkada ematen dien pertsona gustatzea, baina ez zaie bat-bateko kontaktu fisikoa atsegin.
- Zenbaitek kontaktu fisikoa atsegin du, berak eraginda izaten bada, baina zailtasun handiak izaten dituzte beste norbaitek egindako kontaktu fisikoa onartzeko.
- Asperger sindromea duen gazte batentzat zaila izan daiteke kontaktu fisikoaren funtsa zein den ulertzea. Baliteke Alisonek ez ulertzea kontaktu fisikoa adiskidetasuna

azaltzeko modu bat izan daitekeela, edo besterik gabe, bere arreta bereganatzeko modu bat izan daitekeela.

Estrategia erabilgarriak

- Alisonengana aurrez aurre hurbiltzea eta jarraian gertatuko dena ahoz jakinaraztea, adib.: “Alison, oso ondo burutu duzu lan hau, eman bostekoa”.
- Alisonen eta bere gurasoen baimena lortu ondoren, Alisonek kontaktuarekin dituen arazoei buruz hitz egitea ikasgelan, eta arazo horien aurrean tolerantzia eta ulermena azaltzeko jarrera sustatzea. Alisonek aurkako jarrera azaltzen duenean, erantzuteko modu egokia zein den azaltzea.
- Gertaera izan eta ondoren komentatuko da Alisonekin gertatutakoa. Hizkuntza argia eta erraza erabili behar da, eta bizitako egoeraren arazoak azaldu eta erabil daitezkeen aukera desberdinei buruz hitz egin behar da, Alisoni gero eta erreakzio egokiagoak azaltzen irakatsiko zaiolarik.
- Gertaerak gainditzen laguntzeko, erlaxazio-teknikak landu daitezke Alisonekin. Arnasketa- eta erlaxazio-ariketak izan daitezke edo estresa edo antsietatea arintzeko erabiltzen diren esaldiak.
- Egoera desberdinak antzeztea eta erantzun egokiagoak lantzea, ustekabeko kontaktuen aurrean erosoago egoteko.
- Mahaiaren muturrean edo taldetik hurbil baina zertxobait urrunduta esertzen utziko dugu Alison. Baliteke espazio handia behar izatea bere burua eroso sentitzeko. Bileretan, ilara baten amaieran edo hasieran, edo ikasgelaren mutur batean esertzen utziko diogu Alisoni.
- Zenbait eskolatan masajeak eta aromaterapia egiteko aukera eskaintzen da. Gorputz-adarretan masajeak egitea egokia da, hartara Alison hobe sentitzeko. Honako jarduera hau garatzeko, Alisonek ezagutzen dituen pertsonak behar ditugu, bera eroso eta seguru sentitzeko, eta adin-txikikoen babes-prozedurei jarraituta egin behar da.

Ikus-estimuluen aurreko hipersentiberatasuna

Emilyk begiak ixten ditu jendez gainezka dagoen gela batera sartzean. Badirudi zaila egi-ten zaiola bere begirada nora zuzendu erabakitzea, eta ezin du den-dena kontrolatu.

Egoera ulertzeko gakoak

- Asperger sindromea duten zenbait pertsonak jendeari begiratzean ikusten ez dutela dirudi, eta begietara zuzenean begiratzea saihesten dute.
- Traketsak eta baldarrak direla dirudi, eta sarritan zalantzak izaten dituzte eskailerak igotzeko edo jaisteko, edo espaloiak igotzeko edo jaisteko, eta abar. Ez diete arretarik eskaintzen beren lagunei, eta hala ere, lurrean paper txikiak aurkitzeko gai dira, lurra denbora luzean eta kontu handiz begiratzen baitute. Baliteke arazoak izatea ikus-informaziotik garrantzitsua dena bereizteko, eta ez dute koadroa bere osotasunean ikusten.
- Asperger sindromea duten zenbait pertsonak sinesten dutenaren arabera, arbelean idatzitako hitz solteak elkartu eta esanahirik gabeko iskanbila sortzen dute.
- Baliteke Asperger sindromea duten pertsonak ezin jasatea argi distiratsuak edo eguzkiaren argia, eta litekeena da gela ilun batean erosoago egotea. Zenbait argik kalte ere eragin ahal diete.

Estrategia erabilgarriak

- Emilyrentzat lanerako zona berezi bat prestatzea, distrakziorik gabe. Horretarako, Emilyren mahaia paretara begira jarriko dugu, ikus-estimuluak mugatzeko. Oso garrantzitsua da lanerako zona hau Emilyk bakarrik lan egin behar duenean erabiltzea. Beste zenbait egoeratan ikasgelako kide bat gehiago izango da.
- Inguruko ikus-distrakzioak mugatzea, horretarako ingurua ahalik eta gehien egituratuko delarik. Lanerako zonak eta orriak, eta azalpenak emateko espazioak, ezin ditugu inolako antolamendurik gabeko informazio bisualez inguratu.
- Lanerako orriak bereizi egin behar dira informazio gehiegi metatzea saihesteko, eta aldi berean, ikus-informazio erabilgarria eskaintzeko, hala nola, non hasi, non amaitu, erantzunak non jarri, eta abar.
- Emilyk ikus-estimulu gehiegi jasoko dituen egoeretan, gauza zehatz batzuk aukeratzeko eta horietara mugatzea eskatuko diogu. Horretarako, egoera jakin bat bideoz grabatu eta bertan ikusten diren alderdi garrantzitsuak eta arreta eskaini beharreko alderdiak zeintzuk diren bereizi behar da.
- Ikus-estimuluekin jokatzeko orduan izango dituen zailtasunei buruz hitz egitea Emilyrekin. Senti dezakeenari buruzko introspektzio-ikuspegia beregana dezake, eta garatuko den elkarrizketatik zenbait estrategia pertsonal bereganatuko ditu.

- Emilyk arazoak baditu ikus-kontaktua ezartzeko orduan, hobe da errespetatzea. Hala ere, gutxieneko ikus-kontaktuari eusteko gizartean onartuta dauden arauak irakastea komeni da. Esate baterako, Emilyri irakasle batek hitz egitean, noizean behinka begiratzea komeni da, eta ondoren behera begiratzea; hobe da honela jokatzea sorbaldaren gainetik begiratzea baino.

EMOZIO-MAILAKO ZAILTASUNAK

Autokontrolaren garapena

Zergatik haserretzen da Wesley, itxura batean inolako arrazoirik gabe?

Egoera ulertzeko gakoak

- Asperger sindromea duten pertsona gehienek arazoak izaten dituzte gainontzekoen arrazoiak eta helburuak ulertzeko. Egitura gutxiagoko egoeretan beste pertsona batzuekin harremanak izateak estres izugarria eragiten die. Zenbaitetan, tentsio hori askatzeko haserrealdiak sortzen dira.
- Asperger sindromea duten hauren emozio-mailako garapena geldoagoa da. Sarritan azaltzen dituzten erreakzioak haur txikiagoen erreakzioak dira.
- Asperger sindromea duten haurrek motibazio txikia dute beste pertsonek duten iritzieren aurrean, eta baliteke ez ulertzea gainontzekoen ikuspegitik bere portaerari ematen zaion interpretazioa. Ondorioz, bere portaera ezkatatzeko edo kontrolatzeko joera ere murriztu egiten da.
- Wesley bezalako haurrek lagunak eduki nahi dituzte, baina asko kostatzen zaie adiskideak lortzea edo adiskidetasunari eustea. Amorruren bitartez esparru honetan bizi dituzten frustrazioak eta etsipena azaleratzen dituzte.
- Asperger sindromea duten zenbait haurrek gertatu zaizkien gauzei buruzko gogoe-ta sakonak egiten dituzte, edo duela zenbait denbora gertatutako gertaerak berriro

bizi dituzte. Baliteke jasandako kalte moralengatik fijazioa edukitzea, kalte errealak izan zein irudimenezkoak izan. Ezinegona arintzeko erreakzio berantiar eta bizi desberdinak azaleratzen dituzte Asperger sindromea duten haurrek.

Estrategia erabilgarriak

- Errazagoa gerta daiteke inguruko alderdi desberdinak aldatzea, Wesleyk pentsatzeko eta sentitzeko duen modua aldatzea baino. Erreakzioen arrazoiak bilatu behar dira, eta arrazoi horiek saihestu ote daitezkeen edo alda ote daitezkeen baieztatu behar da. Teknika honi jarraituta haur gehiagorekin batera lan egin daiteke, Lagunen Taldeak bezalako ikuspegiak landuko direlarik (ikus *Gehiago jakin nahi izanez gero* - 67. or.).
- Wesleyk laguntza behar izango du noiz hasten den haserretzen jakiteko. Baliteke autoerlaxaziorako estrategiak onuragarriak izatea edo baliteke autokontrolaren galera gerta daitekeen egoera desberdinak saihesteko errutina bat aukeratzea egokia izatea. Horretarako, egoera desberdinak entseatu behar dira eta Wesleyri zenbait arau zehaztu beharko zaizkio bizitza errealeko egoeretan jokatu ahal izateko (ikus *Gizarte-harremanak: Zer egin lagunak galtzean?* - 23. or.).
- Gertaera bat izan eta ondoren Wesleyrekin hitz egitea oso garrantzitsua da. Eztabaida lasaia, erraza eta gertaerekin erlazioan garatzeko, ezin dugu zigorrik aipatu. Gertaeraren hasierako faseak bereiziko dira eta zailtasunari erantzuna emateko edo zailtasuna saihesteko modu desberdinak lortu behar dira.
- Lortutako autokontrola saritzeko pizgarri positiboak ematea proposa daiteke (haserrealdirik egon ez den egun bakoitzagatik, edo egun erdi bakoitzagatik edo ordu erdi bakoitzagatik).

Antsietatea

Davidek asko kezkatzen du gerta daitekeenak. Behin eta berriro galderak egiten ditu eta planak aldatu behar badira lur jota geratzen da.

Egoera ulertzeko gakoak

- Asperger sindromea duten haur gehieni asko kostatzen zaie gertatuko dena aurreikustea.
- Zenbaitek bere emozio-mailako segurtasuna errutinen eta errepikapenen mende uzten du.

- Zenbaitek galderak errepikatu egiten ditu, erantzuna beti berdina izango dela ziurtatzeko edo espero duten erantzuna entzuteak ongi sentiarazten dituelako. (Ikus *Komunikazioa – Galdera errepikakorrak - 34. or.*).
- Haur askok zailtasunak ditu bere emozioak bereizteko eta horiek adierazteko, eta ondorioz, antsietatea azal daiteke.
- Gehienek arazoak dituzte gainontzekoen asmoak eta arrazioak ulertzeko orduan, empatia gutxi dutelako: gizarteko egoera desberdinak bereziki zailak gertatzen dira gaixo hauen kasuan.
- Zenbaitek sentitzen duen antsietatea barneratu egiten du, eta ondorioz, lesio fisikoak eragin, adibidez: eskuetan koska egitea.
- Zenbait haurrek sentitzen duten antsietatea beldurraren ondorio da, hain zuzen haur hauek bizi izan dituzten esperientzia beldurgarrietan jatorria duen beldurraren ondorio, adibidez: suteen aurkako alarmak. Honelako esperientzia bat errepikatu ahal izateak eragiten duen beldurra haurraren bizitza menderatzera irits daiteke æbaita jatorrizko egoerarekin inolako antzarik ez duten egoeretan ere.

Estrategia erabilgarriak

- Haurrari eguneroko errutina sendo bat eskaini behar zaio, erabilgarri gertatzen den kasuetan. Inguruan gertatuko diren gauzak aurreikusteko gaitasuna eta inguruaren egonkortasuna oso lagungarriak dira Asperger sindromea duten haurrentzat.
- Davidek alde aurretik ezarritako errutinan gerta daitezkeen aldaketak ezagutzen dituela ziurtatzea. Jarduera bereziak garatzeko edo aurreikusitako aldaketen aurrean, alde aurretik David prestatzea. Baliteke ahozko azalpenak ikus-materialarekin osatzea egokia izatea, konfiantza-maila altuagoa lortu nahi den kasuetan (edo azalpena ulertzen ez denean).
- Beldur irrazionalak, normalean, mailakako desentikortzearekin erlazionatuta daude, eta egokia da haurrari sentitzen duen beldurrari aurre egiteko aukera eskaintzea, baina berak egoera kontrolatuko duen eta beldurra eragiten duen arrazioa kontrolatuta egongo den eszenategi batean (adib.: suteen aurkako alarmaren grabazio bat tonu baxuan, txakur bati buruzko bideo bat, eta abar). (Ikus *Irudimena eta zorrozatasuna: Fobiak - 39. or.*).
- *Gizarte Erlazioak* sekzioan, Davidi gainontzekoei arreta eskaintzeko eta eguneroko gizarte-egoera arruntetan moldatzeko ideiak bilatzea.

- Jarduera berriak pixkanaka-pixkanaka aurkeztuko dira. Ahalik eta zehaztasun handienarekin deskribatu behar dira eta haurrak behar bezala ulertzen dituela ziurtatu (adib.: eskolako irteeran gertatzen denari buruzko bideo bat errazago ulertuko da errealitatea bera baino). Batzuetan oso erraz baieztatu daitezke haurrak errazago onartzen dituela familia-errutinako aldaketa handiak aldaketa txikiak baino.
- Antsietatea arintzeko edo kontrolatzeko teknikak irakastea. Azokan estresa arintzeko eta erlaxazio-errutina desberdinak lantzeko erabilgarriak izan daitezkeen jostailuak aurkituko ditugu.

Frustrazioa eta umore-aldaketak

John bere buruarekin kontent sentitzen da, lasai bizi da, baina bat-batean, lur jota geratu eta larritu egiten da.

Egoera ulertzeko gakoak

- Asperger sindromea duten zenbait hurrek frustrazio-maila oso altua izaten dute, beren sentimenduak modu egokian adierazteko gai ez direlako, edo eguneroko gizarte-egoerak ulertzeko gai ez direlako.
- Asperger sindromea duten zenbait hurrek umore-aldaketa asko izateko joera dute, eta aldaketa horiek pentsamendu edo portaera obsesiboekin egon daitezke erlazionatuta, edo kanpoko sentimen-esperientziek eragin ditzakete, hala nola zaratak edo argiak.
- Zenbait haurren kasuan, eredu zikliko bati jarraitzen diotela dirudi, haurren umorea baldintzatzen delarik.
- Asperger sindromea duten haur askok zailtasunak izaten dituzte gizarte-kontzientzia garatzeko, hain zuzen pertsona gehienek portaera inhibitzen duena, eta beren nahiak betetzeko itxaron behar badute, edo nahi horiek atzeratzen badira, frustrazioa agertzen da haur hauen artean.

Estrategia erabilgarriak

- Johnen hiztegi emozionala garatzen saiatzea. Bere sentimenduak interpretatzea eta izena jartzea. Johnek, pixkanaka-pixkanaka emozio-mailako esperientzien oroitzapen bat osatuko du, eta emozio bakoitza lortzeko egin beharrekoaren inguru-

ruan eta emozioak berarekin dakarren sentimenduaren inguruan kontzeptu zabal bat garatuko du.

- Johnen izaera obsesiboa bada, obsesio horri buruz hitz egiteko eta obsesio hori errealitatean gauzatzeko unea antolatuko dira. Sarritan, errutinen eta obsesioen ondorioz antsietatea eragiten da. Horiek desagerrarazten saiatuz gero, frustrazioa areagotu egingo da.
- Johnen umore-aldaketak eguzkiak gogor jotzen duen egunekin edo zarata-maila altuekin batera kanporatzen ote diren baieztatzea. Horrela izanez gero, ikasgelan betetzen duen lekua aldatzea egokia gerta daiteke, bai eta beira tindatuak erabiltzea argiarekiko hipersentiberatasuna prebenitzeko.
- Umore-aldaketak ziklikoak badira eta itxuran kanpoko eragilerik ez badago, baliteke haurrak osasun-arreta behar izatea. Baliteke haurrak depresioa izatea, autokontzientzia-maila altua duten haurrengan ohikoa den ezaugarri bat, hain zuzen (ikus *Depresioa - 55. or.*).
- Johni alde zuzenetik jakinaraziko zaio bere errutinan aldaketak egin direla, izan ere, litekeena da Johnengan frustrazioa sortzea. Zain egon behar duenean edo ilara batean bigarren lekuan jarri behar duenean Johnek egoera onartu behako du, eta hala eginenez gero, goraipatu egingo dugu. Pixkanaka-pixkanaka, bere nahiak atzeratu beharko dituen okasioak aniztuko dira.
- Ezin dugu itxaron Johnek bere sentimenduak partekatzeko gaitasuna azaldu arte. Nahiz eta autokontzientzia eduki, baliteke gainontzekoek berarengan interesa dutela eta berarengandik kezkatzen direla ez ulertzea.
- Johnen ongizatea zaintzeko arduradun bat egotea, eta laguntza behar izanez gero, arduradun horrengana jo behar duela ulertaraztea.

Autokontzientzia

James gero eta gehiago ohartzen da desberdina dela, eta behin eta berriro galdetzen ditu desberdintasun horren arrazoiak.

Egoera ulertzeko gakoak

- Asperger sindromea duten haurrak garapenaren une jakin batera iristean hasten dira ohartzen desberdinak direla. Ondoren, desberdintasun horiez kontziente diren

aldia iristen da, baina desberdintasun horiei ez diete garrantzirik ematen edo desberdintasunaren arrazoiak besteei egozten dizkiete. Haurraren arabera, “desberdintasunez” une desberdinetan ohartzen dira. Zenbait Lehen Eskolan daudela ohartzen dira, baina gehienek kasuan Bigarren Hezkuntzan gertatzen da, nerabezaroan, hain zuzen (*).

- Gurasoei *dagokie* beren seme-alabei Asperger sindromea dutela jakinarazteko edo ezkutatzeko erabakia. Hala ere, gaia arazo garrantzitsu bilakatzen den unean plan-tea ahal zaie gurasoei aukera hori.
- Haurrari Asperger sindromea duela jakinaraztea erabaki bada, beste zenbait profesionalen aholkua entzutea komeni da, hartara haurra prestatzeko eta haurrari laguntzeko modurik egokienak aurkitzeko.

Estrategia erabilgarriak

Haurrak Asperger sindromea duela ez badaki

- James aurrean dagoela, bere ikaskideekin hitz egin behar da gaixotasunak eragiten dituen desberdintasunei eta elkarri eskaini beharreko laguntzari buruz.
- Jamesek aukeratuko duen heldu batekin aholkularitza-saioak garatzea, non kezkatzen duen edozein gauzari buruz hitz egingo den.

Haurrak Asperger sindromea duela baldin badaki

- Sarritan, Asperger sindromeak eragiten dituen ondorioei buruz konfiantzazko norbaitekin eztabaidatzeko aukera eskaini behar zaie (ikus *Gehiago jakin nahi izanez gero* – “Nire Erretratua”-ri buruzko xehetasun gehiago ezagutzeko. 67. or.).
- Asperger sindromea duten haurrekin gaixotasunari buruz hitz egiteko aukera desberdinak eskaintzea.
- Asperger sindromea duten pertsonen eta eskumenero profesionalen idatzitako materiala eskaintzea.
- Asperger sindromea duten haur gehiagorekin gutunak idazteko aukera eskaintzea. (Ikus *Gehiago jakin nahi izanez gero* - 67. or.).

(*) Ingalaterran, Lehen-Hezkuntza 11 urte arte luzatzen da. Espainian Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara 12 urterekin igarotzen da, hau da, Ingalaterran baino urtebete beranduagoa (itzultzailearen oharra).

Umarek lur jota sentitzen den uneak bizi ditu.

Gehiago jakin nahi izanez gero

- Asperger sindromea duten haur askok behin eta berriro ezagutzen dute porrota eta bazterketa gizarte-egoera desberdinetan. Gainontzeko guztiek modu naturalean egiten dutena, beraiei ikaragarri kostatzen zaie, eta kasu horietan ere, askotan gainontzekoei “ulertzeko” egiten duten ahalegina alferrikakoa izan ohi da.
- Asperger sindromea duten zenbait haurrenganako harremanak denbora asko eskatzen du. Zailtasun horien guztien ondorioz, eskolako pertsona helduenganako erlazioetan oztopoak izan daitezke.
- Asperger sindromea duten haurrek zailtasunak dituzte gainontzekoen pentsatzeko modua edo sentitzeko modua ulertzeko. Sarritan saiatzeko dira, baina gainontzekoak behar bezala ulertzen ez dituztenean haserretu egiten dira.
- Asperger sindromea duten zenbait pertsona ohartzen da desberdinak direla, eta beren nahiak kontrolatu egiten dituzte gainontzeko pertsonak bezalakoa izatea gustatuko litzaiekeelako.

Estrategia erabilgarriak

- Umaren ongizatea kontrolatuko duen arduradun bat egongo dela ziurtatzea eta bere sentimenduei buruz hitz egiteko aukera desberdinak eskaintzea. Oinarrizko maila batetik hasi behar da, hala nola sentimenduak adierazteko hiztegi bat lantzea.
- Umarek heldu batengana jo eta bere sentimenduak adieraztea gerta daiteke, baina hala ere, ez da beharrezkoa une horren zain egotea. Baliteke Umarrek bizi duen egoera ez ezagutzea, edo norbaitekin hitz egitea lagungarria gerta daitekeela ez jakitea.
- Autokontrolen bere burua nahastuta ikusi behar du, eta bizi dituen egun onak eta egun txarrak bereizi, egoera desberdinetan eragina duten alderdiak zeintzuk diren bereizteko.
- Laguntza eskatzeko estrategia desberdinak garatzea, lur jota dagoenean erabiltzeko.
- Zailtasun larriagoen aurrean adi egotea. Arreta eta antolamendua apurtzen ari direla adierazten duten seinaleetara adi egotea, estresaren eta isolamenduaren murrizketa adierazten duten seinaleetara adi egotea. Beharrezkoa den kasuetan, gurasoei kanpoko laguntza eskatzea gomendatuko zaie. Baliteke Umarren gurasoek, bizi duten egoera familia-mediku batekin komentatzeko premia izatea.

LANERAKO TREBETASUNAK

Motibazioa

Jasonek espazioko hegaldiei buruzko liburu luzeak idatziko lituzke – baina ez du ezer idatzi nahi erromatarren garaiari buruz.

Egoera ulertzeko gakoak

- Asperger sindromea duten gaixoen ezaugarri bat da berariazko gai baten inguruan interes izugarria azaltzea (eta askotan interes mugatua), eta gainontzeko gaien inguruan, berriz, inolako interesik ez agertzea.
- Gazte gehienek artean eragina duten “gizarteko” motibazio-iturriek ez dute eragin handiegirik izaten Asperger sindromea duten ikasleen artean: baliteke gainontzekoen aurrean ondo geratzeagatik interesik ez edukitzea, edo miresten dituzten helduei imitatzeke interesik ez edukitzea.
- Irudimenik ezaren ondorioz, epe luzerako pizgarriak alferrikakoak izatea gerta daiteke, bai eta etorkizunera begira egiten diren planak ere (esate baterako, azterketen emaitzak, irteera profesionalak, eta abar).
- Asperger sindromea duten gazteak (bereziki nerabezeroan) baliteke beren zailtasunak eta sentimenduak ikusita kezkatu egotea, eta ondorioz, ez dute izaten lanean kontzentratzeko energiarik.

Estrategia erabilgarriak

- Jason gaztea bada, curriculumeko zenbait arlo Jasonek espazioarengatik azaltzen duen interesarekin konekta daitezke. Honako estrategia hau garatzea zailago egiten da haurrak eskolan aurrera egin ahala.
- Pizgarrien eta motibazioaren iturri bezala edozein interes konpulsibo erabiltzea me-rezi du, adibidez: “Lan hau 10:30etarako amaitzen *baduzu, orduan* 10 minutu edukiko dituzu zure espazioaren proiektuan murgiltzeko”.
- Egin beharreko lanaren kantitateari eta kalitateari buruzko azalpenak berariazkoak eta zehatzak izango dira. Hasteko, hobe da epe laburrera lortu nahi diren helburuak zehaztea, eta pixkanaka-pixkanaka, iraupena luzatuko da.
- Baliteke, kanpo-pizgarriak erabilgarriak izatea. Hala ere, gogoan hartu behar da hobe dela sarritan sari txikiak eskaintzea; eta horrez gain, kontu handia eduki behar da sari horiek aukeratzeko orduan. Oso erabilgarria izaten da gaixoaren ideiak zeintzuk diren ikertzea, hartara saria aukeratzeko orduan kontu handia edukitzeko. Ikas-gelan beti erabiltzen diren sariak baliteke eraginkorrak ez izatea.
- Ikus-sistemak erabiltzea, Jasoni bere lana ondo betetzen ote duen eta aukeratu duen saria jasotzeko zenbat falta zaion adierazteko. Bereziki garrantzitsua da atzerapen esanguratsuak gainditu behar direnean.

Antolamendu pertsonala

Chris-ek zailtasun handiak ditu ikasgela batetik bestera joateko, eta beste ikasgelara iristean, ez du sekula aurkitzen irakasgaiari dagokion materiala.

Egoera ulertzeko gakoak

- Asperger sindromea duten hurrek sarritan arazoak izaten dituzte beren antolamendu pertsonalarekin. Hizkuntza, pertzepzio-estimulazioa eta gizarte-mailako eskakizunak aldi berean ulertu eta onartu behar direnez, gerta daiteke erabat galduta bizitzea. (Honelako egoera bat edozeini gerta dakioke, baina Asperger sindromea duten pertsonak, badirudi, egoera jasateko ahalmen txikiagoa dutela.)
- Asperger sindromea duen gaztearentzat, baliteke zentzugabea izatea pertsonalki antolatzeko ahalegin gehigarri bat egitea. Gainontzekoekin atsegina izatea, lanak amaitzea edo trebetasun jakin batzuk inolako arazorik gabe erabiltzen jakitea beza-

lako ezaugarriek ez dute garrantzi handiegirik Asperger sindromea duen gazte baten bizitzan.

- Antolamendu-mailako arazoak maila desberdinetan ager daitezke:
 1. Espazio irekietan, non kokatu jakitea eta leku batetik bestera nola joan jakitea.
 2. Laneko orrietan erantzunak non idatzi jakitea, bai eta orri zuri batean testua non jarri jakitea.
 3. Irakasgai bakoitzari dagokion materiala prest edukitzea.
 4. Eskolara eraman beharreko eta egunero etxera eraman beharreko materiala eza-gutzea.

Estrategia erabilgarriak

- Chris-i mapa bat ematea eskolaren barruan orientatzeko.
- Laguntza eskaintzea, bereziki ikaskideen laguntza, eskolaren barruan batetik bestera mugitzeko.
- Irakasgai bakoitza garatzeko behar den materialaren zerrenda bat egitea. Zerrenda erabiltzea beharrezkoa den kasuetan.
- Zereginen hasieran sinbolo bat jartzea, adib.: hasieran berdean dagoen semaforo bat, eta amaieran beste kolore bat.
- Laneko orriak handitzea eta erantzunak kokatzeko lekua argi eta garbi adieraztea, horretarako koloreak erabil daitezkeelarik.
- Espazio irekietan, esertzeko edo zutik egoteko zonak adieraztea, horretarako objektu desberdinak erabil daitezkeelarik, hala nola: gimnasia egiteko uzta bat, alfondratxo bat, esertzeko kuxin bat, eta abar.
- Sinboloen edo hitzen bitartez ordutegi bat lantzea, Chrisen etxera eraman dezan (ikus *Gehiegizko mendekotasuna - 61. or.*). Ordutegi hori nahikoa izango da egunero behar diren gauzez ez ahazteko.

Kontzentrazioa eta ikasteko giroa

Kirsty beti dabil batetik bestera. Badirudi ezin duela lasaitu eta burutu beharko zukeen jardueran kontzentratu.

Egoera ulertzeko gakoak

- Asperger sindromea duten pertsonen kontzentratzeko gaitasun handia eduki dezakete, baina kontzentrazioaren xede den objektua aukeratzeko modua benetan bitxia izan ohi da.
- Asperger sindromea duten gazteek zailtasunak dituzte kontzentratzeko objektua aukeratzeko orduan, bereziki jarraibideak entzun ez badituzte.
- Kanpoko iturrien eraginez erraz distraitzen dira eta garrantzirik ez duten estimuluak baztertzeko orduan arazoak dituzte (bereziki soinuak eta ikus-informazioa).
- Pentsamenduak eta kezkek gehiegi barneratzen dituzte, eta askotan larritasuna sortu.
- Asperger sindromea duten haurrak eskolan estresatu egiten badira, beren fantasiazko munduan murgiltzen dira.

Estrategia erabilgarriak

- Kirsty bezalako gazte askorentzat balio duen funtsezko estrategia bat da egituraketa-maila altuak eskaintzea. Horrek emaitza positiboak lortzen ditu maila desberdinetan.
- Praktiko bada, berezirik dagoen laneko zona bat finkatzea oso erabilgarria gerta daiteke, bertan banakako lana garatzeko. Aukeratu den zona honek gutxieneko distrakzioak eskaini beharko lituzke, eta egokiena izango litzateke zona babestea (adibidez, kartoizko kaxa handiak erabiliz). Lanerako material guztia erabilgarria eta antolatua dagoela baieztatu behar da saio bakoitzari ekin baino lehen. Helburu nagusia da lekuaren eta amaitutako lanaren artean lotura bat sortzea.
- Ikus-adierazpenak ere erabilgarriak gerta daitezke. Jarraian garatu beharreko jarduerak adierazteko erabil daitezke (bereziki Kirsty motibatzeke balio badute). Jarduerekin batera, jarduera bakoitza garatzeko urratsak zehaztuko dira. Sinboloen eta hitzen bitartez Kristy-ri oinarritzko arauak eta helburuak aditzera emango zaizkio.
- Soinu-seinaleak (hala nola sukaldeko alarmak edo antzekoak), berariazko zereginekin loturik, haurra kontzentratzeko orduan lagungarriak gerta daitezke. Eta soinu-seinaleak bestelako pizgarri batzuekin batera erabiltzen baditugu, baliteke haurrak ahalegin handia egitea eta behin eta berriro ikusten dituen distrakzioei jaramonik ez egitea.

- Zereginak modu argian eta kontu handiz antolatu behar dira. Urrats bakoitzari buruz berariazko azalpenak emango ditugu, eta amaierako produktua ere xehetasun handiz deskribatu behar da.
- Kirstyren lan-erritmoari eta kontzentrazio-mailari dagokienez, errealistak izatea. Laguntza pertsonala ematen bazaio, baliteke erritmoa biziagotzea, eta egun osoan erritmo horri jarraitzea ezinezkoa izatea, baina gutxienez, saio pertsonaletan lan desberdinak burutuko ditu.
- Kirsty-k bere ikaskideekin duen harremanaren arabera, oso erabilgarria gerta daiteke ikaskide lankidearen sistema erabiltzea, hau da, haurrek Kirsty-ri gogoraraziko diote kontzentratu behar duela (horretarako, aldeztatik *adostutako* adierazpen bat erabiliko delarik).

Gehiegizko mendekotasuna

Michael-ek ez du ezer egiten zer egin esateko bere alboan eserita ez banago – baita erraztasun handiz egin ditzakeen gauzen kasuan ere.

Egoera ulertzeko gakoak

- Asperger sindromea duten haur askori ez zaizkie aldaketak atsegin, eta gauzak beti modu berean eta jende berdinarekin egitera ohitzen dira.
- Batzuetan pertsona helduaren agerpena pizgarri fisikoa izaten da, eta irudi hori desagertuz gero, haurrak egiten ari zena bertan behera utziko du, baita lana erraza bada ere. Helduek pentsa dezakete “kartoizko irudi” bat ere eraginkorra izango litzatekeela.
- Zenbait haurrek ez dute independentea izateko gizarte-motibaziorik, eta ez dute sekula “utzi niri bakarrik egiten” bezalako esaldirik esaten, beste zenbait haurrek egiten duten bezalaxe.
- Askoren autoestimua eta konfiantza eskasa da, eta pertsona helduaren agerpenak segurtasun handiagoa ematen die.
- Batzuetan, laguntza eskaintzen duen pertsona helduak pentsatzen du, haurrak lana behar bezala garatzeko bere agerpena ezinbestekoa dela, eta ondorioz, ez du haurraren independentzia sustatzen, baizik eta mendekotasuna.

Estrategia erabilgarriak

- Michael-ek zenbait trebetasun bereganatu bezain laster, egunero une bat aukeratuko da horiek praktikan jartzeko. Eskatzen zaiona haurarentzat gehiegi ez dela ziurtatu behar da. Estrategia hau Michaelen independentzia garatzeko da, eta ez zeregina garatzeko bakarrik.
- Zeregin bat laguntzarik gabe amaitzen duen bakoitzean, Michael goraiatzea. Bere lana amaitu duela jakinarazteko modua irakatsi behar zaio, adib.: ahoz, amaituta jartzen duen txartel batekin, materiala gordez, eta abar (ikus *Kontzentrazioa eta ikasketeko giroa* - 59. or.).
- Michael laguntzen duten pertsona guztiak, eguneko une batean, pixkanaka-pixkanaka Michael bakarrik uztera animatzea. Michael askatasuna behar du, baina gainontzeko guztiak prest egon behar dute Michael laguntza behar badu, laguntzeko.
- Michaeli bere materiala antolatzen laguntzea, eta laguntza kendu baino lehen, garatu beharko dituen zereginak eta materiala behar bezala ulertu dituela baieztatzea. Hasiera batean, pertsona helduak beste haur bati eska ahal dio Michaeli laguntzeko.
- Michaelen ikaskideei laguntza eskaintzera animatzea, adib.: jolastera animatuz, ordenagailuarekin lan eginez. Baliteke gehiegizko eta kontrolrik gabeko laguntza prebenitu behar izatea.

Idazketarekin arazoak

Jackek zailtasun handia du idazteko. Idazketa ez da bat ere uniforme, eta are okerragoa da idazten ari dena pentsatu behar duenean.

Egoera ulertzeko gakoak

- Asperger sindromea duten haur askok mugimendu-mailako arazoak izaten dituzte, eta ondorioz, oso zaila egiten zaie idaztea.
- Asperger sindromea duten haur askok kontzentratu behar izaten du idazketaren mekanikarekin. Horrez gain, idazten ari direnari buruz pentsatzeko eskatzen bazaie, egoera oker daiteke.
- Zenbaitek ondo idazten dute jardueraren hasieran, baina berehala nekatzen dira.

- Zenbaitek arazo handiagoak izan ohi ditu idazteko antsietatea sentitzen badu (bai idazketagatik, bai beste edozein arrazoirengatik).
- Zenbaitek arazoak dituzte lan egiteko orduan denbora mugatzen bazaie, eta lana amaitzea asko kostatzen zaie.

Estrategia erabilgarriak

- Jackek idazketaren trebetasunak garatzea garrantzitsua bada ere, ez da erregistro-metodo bakarra. Honako aukera hauek erabil daitezke:
 - ordenagailua
 - grabagailua
 - diktaketak
 - moztea eta itsastea
 - erantzun itxiak
- Aste osoan eta irakasgai bakoitzari dagokionez, Jack-ek burutu beharreko lanaren plangintza egitea egokia izan daiteke. Helburu nagusia metodo desberdinen arteko oreka ziurtatzea da (eta irakasleei argitasuna eta lasaitasuna eskaintzea). Eta hau guztia Jack-en ordutegian zehaztu beharko litzateke.
- Jack-i noiz idatzi behar duen jakinaraziko zaio. Asperger sindromea duen ikasleak zailtasunak izan ohi ditu gainontzekoek espero dutena aurreikusteko.
- Jacken antsietateak bereiztea, eta ahal izanez gero, honelako egoeretako presioa murriztea.
- Tenporizadore desberdinak erabil daitezke denbora mugatzeko. Jack-ek denbora aurrea doala ulertuko du, baita idazten ari dena amaitu behar duela ere.

Arazoak oroimenarekin

Harjas-ek ez daki eskolan egindakoa niri esaten; galdera asko egiten badizkiot bakarrik erantzuten dit. Galdera egokia egiten badiot, orduan gauza asko kontatzen dizkit.

Egoera ulertzeko gakoak

- Asperger sindromea duten zenbait ikaslek arazoak izaten dituzte oroitzapenetan murgiltzeko. Oroimena badute, baina arazoak izaten dituzte berreskuratzeke. Bartzuetan adierazpen argi eta zehatz bat behar izaten dute.

- Zenbaitek arazoak izaten dituzte galdera irekiak erantzuteko orduan, adib.: Zer egin duzu gaur eskolan? Baina aukera egin beharreko galderen kasuan, erantzun bat emateko gai izaten dira, adib.: Zaldian ibili zara ala igerian?

Estrategia erabilgarriak

- Harjasi bere oroimenean biltegitratuta duen informazioa berreskuratzen laguntzeko adierazpenak ematea. Informazioa antolatzea eta oroitzeko gako-hitzak zehaztea.
- Gurasoekin komunikazio bizia edukitzea, ikasgelako liburuaren bitartez edo etxean lan egiteko egutegiaren bitartez. Haurraren oroimena aktibatzeke balio duten hitzen zerrenda bat lantzea.
- Galdera irekiek planteatzen dituzten zailtasunekin kontu hartzea, eta galdera horiek Harjasek erantzuna berreskuratuko duela pentsatzen dugunean bakarrik egitea. Laguntza eskaini behar zaio, nahi eta nahi ez erantzuna aukeratu beharreko galderen bitartez, adibidez.
- Harjasek berariazko informazioa memorizatzea nahi badugu, informazio hori aktiboki prozesatzera animatuko dugu. Honako teknika lagungarri hauek erabil daitezke:
 - Informazioa diagrama edo marrazki batean biltzen saiatzea.
 - Informazio berriaren edo kontzeptu berrien eta jada ezagutzen den informazioaren artean loturak zehaztea. Informazioa pertsonalizatzen saiatzea.
 - Oroimena lantzeko teknikak irakastea, hala nola gauzak buruz esatea edo mapa kontzeptualak lantzeko.
 - Haurrarekin bizitako esperientziei buruz hitz egiterakoan, haurraren parte-hartze pertsonala eta jardueren aurrean izandako erreakzioak bereziki azpimarratzea.

Zer egin etxeko lanekin?

Jenny-k berak nahi dituen etxeko lanak bakarrik egiten ditu. Ez zaio axola zigorra jasotzea etxeko lanak ez baditu egiten.

Egoera ulertzeko gakoak

- Asperger sindromea duten zenbait haurrek ez dute etxeko lanak egiteko gaitasunik, etxeko espazioa eta eskolako espazioa nahastu egiten dituztelako; eta ondorioz, beren burua ere erabat nahasturik geratzen da.

- Gehienen kasuan ez dute ohiko gizarte-motibaziorik ezagutzen beren gurasoen edo irakasleen aurrean atsegingarriak izateko.
- Askok ez du ulertzen etxeko lanak egitea garrantzitsua denik, nahiz eta etxeko lanak egiteko arrazoia ulertzen duten, adib.: gelan nota hobeak ateratzea.
- Asperger sindromea duten zenbait haurrek aitzakiak jartzen dituzte etxeko lanak ez egiteko. Aitzakia horiek zenbaitetan baliagarriak izan ohi dira, eta beraiek behin eta berriro errepikatzen dituzte, egokia izan ala ez.
- Gehienek etxeko lanak egiten dituzte, batez ere gaia interesgarria iruditzen bazaie, baina zehaztutako epeak betetzeko zailtasunak izaten dituzte, antolamendu pertsonal eskasa dutelako (ikus *Antolamendu pertsonala* - 58. or.).

Estrategia erabilgarriak

- Gurasoekin lan egitea, informazioa ematea eta, Jenny motibatzen eta antolatzen laguntzea.
- Irakasleek ematen dituzten jarraibideak Jennyren gurasoek eta Jennyk ulertuko dituztela baieztatzea. Baliteke Jennyk ez ulertzea idatziz jarritako jarraibideak eskolatik irteteen. Grabagailu bat oso erabilgarria gerta daiteke (ikus *Idazketarekin arazoak* - 62. or.).
- Etxean garatu beharreko lanari begira, bilera bat antolatzea, eta bertan gurasoak, laguntza-irakaslea eta Jenny elkartuko dira. Gaiaren inguruan pizten den eztabaida lagungarria gerta daiteke, eta gainera, bakoitzak dituen ezagupenak zehaztuko dira.
- Irakasleentzat ikuspegi bateratu bat zehaztea. Koherentzia ezinbestekoa da, eta alferrikakoa da irakasle batek zigor bat jartzea, beste batek egoera berean zigortzen ez badu. Jenny erabat nahastea gerta daiteke, edo egoerari probetxu ateratzea.
- Zigorrek ez dira eraginkorrak izaten, eta gainera, arazoa larriagotzea gerta daiteke. Bazkal orduan Jenny zigortzen badugu, beharrezkoak dituen gizarteratzeko aukerak kentzen dizkiogu.
- Jennyk lan egiteko zeregin motibatzaile bat aurkitzea. Zerk motibatu duen jakiteko berarekin hitz egitea. Baliteke erraza izatea hitz egitera bultzatuko duen zera hori aurkitzea. Horrez gain, egindako ahaleginengatik zoriontzea garrantzitsua da.

GEHIAGO JAKIN NAHI IZANEZ GERO

Lagunen Taldeak

Teoria honen funtsa haurrarekin eta ikasgelako ikaskide-talde txiki batekin zuzenean lan egitea da. Lagunen taldeak laguntza-talde bezala lan egingo du arazoei konponbidea aurkitzeko, eta horrez gain, emozio-mailako laguntza emateko iturri ere bada. Teknika honi buruz eta eskolan ume autistekin duen erabilerari buruz informazio gehiago lortu nahi izanez gero:

Barrat P.; Joy H.; Thomas G.; Whitaker P. (1998): "Children with autism and peer support group". *British Journal of Especial Education*, 25 lib., 22. zk.

Aipatu artikuluan beste hainbat egile ere aipatzen dira; bertan teknika honi buruzko alderdi orokorrak deskribatzen dira eta gizarte-taldeetan gizarteratzea errazteko teknikaren erabilerari buruzko aholkuak ematen dira.

Posta bidezko lagunak

Asperger sindromea duten haurrek eta gazteek aukera bikaina dute elkarrekin harremanetan jartzeko *Morning News* aldizkariaren eskutik; hiruhilerokoa da eta 15\$ (AEB) baliotu ditu.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Jenison Public Schools
2140 Bauer Road
Jenison
M1 49428 - AEB

Nire erretratua

Honako hau Carol Gray-k garatutako “Gizarte Erretratuak” izeneko metodoari buruzko berriazko adibide bat da. Haurrak edo gazteak bere buruari buruzko liburu bat idatzi eta marraztu behar du, horretarako haurraren edo gaztearen konfiantzazko heldu baten laguntza eskainiko zaiolarik. Aldez aurretik zehaztutako zenbait urrats gogoan hartuta, haurra bere nortasuna eta ezaugarriak zeintzuk diren ezagutzera animatu behar da. Jarraian Asperger sindromeak eragiten dituen zailtasunak eta premiak bereizi behar dira.

Metodo honi buruzko deskribapena eskuratu nahi izanez gero:

Gray, C. (1997): “Pictures of me - introducing students with Asperger syndrome to their talents, personality and diagnosis” *Communication*, Winter 1997.

Gizarte-harremanetarako hizkuntza erabiltzeko programa

Honako programa honen helburu nagusia da edozein motatako hezkuntza-premia bereziak (eta ez bakarrik Asperger sindromea) dituzten haurren gizarte-komunikazioa hobetzea, bai lehen-eskolan bai bigarren-eskolan. Ebaluazioari eta oharpen sistematikoari dagokienez eredu bat eskaintzen du. Horrez gain, zenbait elkarreraginezko trebetasun garatzeko ere irakaskuntza-eredu bat eskaintzen du (autokontzientzia eta besteen ezagupena garatea, esate baterako), bai eta gizarte-testuinguruan erabiltzeko hainbat iradokizun ere. Xehetasun gehiago nahi izanez gero:

Rinaldi, W. (1992): *Social Use of Language Programme*. NFER - Nelson.

Gizarte Kontakizunak

Carol Grayk garatu zuen estrategia bat da. Kontakizun bat idatzi behar da, non berriazko gizarte-egoera jakin bat deskribatuko den, erantzun eta gizarte-gako garrantzitsuenak eskainiko direlarik. Carol Grayk gida bat eskaintzen du esaldi deskriptiboak eta preskripzio-esaldiak behar den bezala erabiltzeko. Beste pertsona batzuek ideiak eta aukerak kontuan hartzea gomendatzen da.

Teknika honi buruzko deskribapena eta erabileraren adibideak eskuratu nahi izanez gero:

Swaggart, B.L., et al (1995): “Using social stories to teach social and behavioural skills to children with autism” *Focus on autistic behaviour*, 10. lib., 1. zk.

HELBIDE ERABILGARRIAK

Erresuma Batua

The National Autistic Society

393 City Road, London EC1 1NE

Telefonoa: 00441718332299

Euskal Autonomia Erkidegoa

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Hezkuntza Berrikuntzako Zuzendaritza

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 VITORIA-GASTEIZ

ISEI-IVEI Irakas sistema ebaluatu eta ikertzeko erakundea/Instituto vasco de evaluación e investigación educativa

Asturias, 9-3°. 48015 BILBAO

Tel.: 944760604. ivei@isei.euskalnet.net

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Donostiako Ordezkaritza

Andia,13. 220004 DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

Tel.: 943-022850

Vitoria-Gasteiz

San Prudencio, 18 etxabea. 01005 VITORIA-GASTEIZ

Tel.: 945-017200

Bizkaia

Gran Vía, 85. 48015 BILBAO

Tel.: 94-4031000

GAUTENA

Francisco López Alen, 4, 20009 DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

Tel.: 943-215344

gautena@sarenet.es

www.gautena.org

ARAZOAK

Pasaje de las Antillas, 2, 4. bulegoa, 01012 VITORIA

Tel.: 945-221859

APNABI

Pintor A. Gezala kalea, 1-2, 48015 BILBAO

Tel.: 94-4755704

autismo@apnabi.org

Beste hainbat helbide interesgarri:**Confederación Autismo-España**

Guadiana kalea, 38, 28224. Pozuelo de Alarcón. MADRIL

Tel.: 91-3515420

www.autismo.com

FESPAU

Navaleno kalea, 9 (El Bosque) 28033 MADRIL

Tel.: 91-7662222

apna@medusa.es

FEVAS

Pintor A. Gezala kalea, 1-2, 48015 BILBAO

Tel.: 94-4755704